




# LIBURUAREN industriako emakumeen eta gizonen **EGOERA** EAEn

AINHOA NOVO ARBONA



**Argitaraldia:** 1.a. 2020ko ekaina

**Ale-kopurua:** 70

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

**Internet:** [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

**Egilea:**

Ainhoa Novo Arbona

**Koordinatzaileak:**

Kualitate Lantaldea, Kultura Sustatzeko Zuzendaritza-Kulturaren Euskal Behatokia

**Itzultzailea:** Amaia Astobiza Uriarte

**Diseinua eta konposizioa:** Mooneki

**Inprimategia:** Eusko Jaurlaritzaren Erreprografia Zerbitzua

**ISBN:** 978-84-457-3555-8

**Lege-gordailua:** LG G 00392-2020

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

**LIBURUAREN**  
industriako  
emakumeen  
eta gizonen  
**EGOERA** EAEn

AINHOA NOVO ARBONA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020



# AURKIBIDEA

<b>1. Aurkezpena</b>	<b>6</b>
<b>2. Arau-esparrua eta testuinguruan kokatzea</b>	<b>8</b>
<b>3. Industriaren azterketa kuantitatiboa</b>	<b>14</b>
Argitaletxeak	15
Liburu-dendak	21
Argitaletxeen ekoizpena, genero-ikuspegia aintzat hartuta (2017)	22
<b>4. Azterketa kualitatiboa</b>	<b>26</b>
Metodologia	27
Esperientzia pertsonala	27
Emakumeak argitaletxeen eta liburu-denden zuzendaritzan	28
Neurriak, genero-ikuspegia aintzat hartuta	32
Argitaletxearen eta sortzailearen arteko harremana	33
Literatura-kanonari buruzko eztabaida esanguratsua	36
Literatura-lanen ikusgaitasuna: argitaletxeak eta liburu-dendak	36
<b>5. Balorazioa, genero-ikuspegia aintzat hartuta</b>	<b>38</b>
<b>6. Proposamenak, genero-ikuspegia aintzat hartuta</b>	<b>42</b>
<b>7. Eranskinak</b>	<b>46</b>
I. Eranskina: Argitaletxeak elkarrizketatzeko gidoia	47
II. Eranskina: Liburu-dendak elkarrizketatzeko gidoia	49
III. Eranskina: Elkarrizketatuen fitxa	51



**AURKEZPENA**

Txosten honen helburua da aztertzea zer egoeratan dauden liburugintza eta liburuen merkataritza Euskadin 2017. urtean, genero-ikuspegiari dagokionez. Horrenbestez, lan honetan bi eremu behatuko dira: batetik, argitaletxeen industria, eta, bestetik, liburuen txikizkako merkataritza edo liburu-dendak. Bi eremu horien arteko muga argi eta garbi azaltzen da ekainaren 22ko 10/2007 Legean, irakurketari, liburuei eta liburutegiei buruzkoan.

Argitaratzailea edo editorea *“persona natural edo juridiko bat da, zeinak, norbere kontura, literatura-lanak, zientzia-lanak eta, oro har, edozein gaitako lan idatziak hautatu edo kontzebitzen baititu, eta horiek liburu bilakatzeo prozesu industrialak egin edo eskatzen baititu, euskarria edozein dela ere, argitaratzeko eta zabaltzeko edo komunikatzeko”*. Liburu-saltzailea, berriz, *“persona natural edo juridiko bat da, lanbide duena, eskusiboki edo nagusiki, liburuak azken bezeroari saltzea, irispide libreko merkataritza-establezimenduetatik edo edozein eratako urruneko salmentaren bidez”*.

10/2007 Legearen arabera, Estatuko Administrazio Orokorrak liburuen industria eta merkataritza babestu behar du, kultura-aniztasuna eta -dibertsitatea bermatzeko eta irakurgaietarako irispidea errazteko. Euskadin, Eusko Jaurlaritzak Kultura Sustatzeko Zuzendaritza dauka, zeinaren funtzioen artean baitago kultura-industriak laguntzea. Horretarako, liburuen sektoreari zuzendutako laguntzak ematen ditu urtean behin; batzuk sortzaileei zuzenduak dira, hala nola gazteei zuzendutako euskarazko testu literarioak sortzeko dirulaguntzak, euskaraz idatzitako ipuinak eta eleberririk laburrak sortzekoak eta lan grafikoak sortzekoak; beste batzuk, berriz, zuzenean liburugintzari zuzendutako dira, esate batera, literatura-lanak argitaratzeko dirulaguntzak.


Nazioarteko ikerketek erakusten dutenez, azken urteetan hazi egin da emakumeen parte-hartzea argitaletxeetako batzordeetan, bereziki zientzia-aldizkarien argitalpenari dagokionez. Emakumeek liburuen ekoizpenean duten

garrantzia, berriz, ez da ikertu hainbeste; emakumeek autore gisa sortutako literatura-lanak aztertzen dituzten ikerketak badira, baina ez dira hain ohikoak emakumeek argitalpen-presetan edo liburu-dendetan duten lekua aztertzen dutenak. Azterlan honekin, urrats bat eman nahi dugu arlo horretan.

Ikerketa honek bi helburu ditu: batetik, aztertzea zer egoeratan dauden emakumeak eta gizonak liburugintzan 2017an, bai ikuspegi kuantitatibo batetik bai ikuspegi kualitatibo batetik; bestetik, testuingurua eta garapena behatzea eta ulertzea batzuen eta besteen presentzia Euskadiko Autonomia Erkidegoan.

Txosten honetan, lau atal nagusi jaso dira:

- Lehenik eta behin, liburuen ekoizpenean emakumeek eta gizonak duten egoera dagokion testuinguruan kokatu da, aintzat harturik bai lege-esparrua bai arlo honetako berdintasun-planak eta bigarren mailako iturrien kontsultatik atera dugun argazkia.
- Bigarrenik, txosten honetan jaso da zer egoeratan zeuden argitaletxeak eta liburu-dendak Euskadin 2017an, genero-ikuspegiari dagokionez. Horretarako, besteak beste, argitaletxeek urte hartan ekoiztutako literatura-lanak aztertu dira, ISBNa kontuan harturik.
- Hirugarrenik, argitaletxeak eta liburu-dendak zuzentzen dituzten edo haietan parte hartzen duten pertsonen esperientziak eta pertzepzioak jaso dira; batik bat, lan-eremu horietan emakumeen eta gizonen egoerak izan duen bilakaerari buruzkoak, halaber gaur egungo egoeraren gainekoak.
- Azkenik, ikertzailearen balorazio bat erantsi da; berdintasunaren ikuspegia aintzat hartuta, liburugintzan giltzarriak izan daitezkeen elementuak aipatzen dira.



# **ARAU-ESPARRUA ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA**



Emakumeen diskriminazioari eta desberdintasunari buruzko diagnostikoa aldatuz joan da; halaber gizarte zibilaren eskaerak eta, bereziki, elkarte feministen eskaerak eta botere publikoen jokoera-estrategiak. Hasierako esku-hartzeetan, helburu bakarra zen emakumeen eta gizonen arteko legezko berdintasuna lortzea; izan ere, garai hartan diagnostiko hau egiten zen: sexuen arteko desberdintasunaren oinarri nagusia lege batzuen tratamendu diskriminatzailea da. Gerora, baina, ikusi zen legezko berdintasunak ez duela bermatzen egiazko berdintasuna. Adibide gisa, hainbat mugimendu aipa ditzakegu: esate batera, mugimendu sufragista, zeinak aldarrikatzen baitzuen emakumeek eta gizonen eskubide politiko berak izan behar dituztela. Aldarrikapen haren ondorioz, konstituzio-erreforma bat eta legegintza-erreforma bat abiatu ziren, emakumei eta gizoni trataera desberdina ematen zieten artikulua bertan behera uzteko.

Lehen fase hartan, beste diagnostiko hau ere egin zen: ezinbestekoa da emakumeentzat egoera bereziki zaurgarriak diren haietan esku hartzeko neurriak ezartzea. Sasoi hartan, esku-hartzearen eremua gizarte-zerbitzuetara mugatzen zen.

Argi geratu zenean legearen aurreko berdintasuna ez zela aski egiazko berdintasuna lortzeko, bigarren fasea abiatu zen. Horretarako, baliabide politiko eta juridiko berri bat sortu zen: ekintza positiboa; hau da, desabantaila sozialeko egoeran dauden pertsonen zuzendutako pribilegio orekatzaileen aldi baterako ezarpena, desberdintasun soziala gainditzeko helburua duena. Ekintza positiboak edozein arlotako desberdintasun-egoera zehatzak desagerraraztea bilatzen du, ez bakarrik gizarte-politikaren eremuan, eta emakumeak faboratzen ditu, haien garapen sozial eta pertsonal betearen sustatzeko xedearekin. Berdintasunaren arloan jarduteko estrategia hori indarrean dago hainbat arlotan: Eusko Jaurlaritzak sustatutako dirulaguntzetan eta kontratazio publikoetan, adibidez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeko neurriak hartzeko strategiaren parte da, zeinaren helburua baita egiturazko desberdintasun-egoerak Gobernuaren birbanatze-funtzioan duen eragina desagerraraztea.

Hirugarren fasearen ezaugarri nagusia, berriz, hau da: emakumeen eta gizonen berdintasun-politiketan berdintasun-planak txertatzeko estrategia. Berdintasun-planak azken hamarkadetan martxan jarri diren esku-hartze publikoen oinarriko baliabideak dira. Jarduketa-esparruak dira; gizarte-eremu desberdinetan emakumeen eta gizonen berdintasuna

eraginkorra izateko estrategia-eta neurri-multzoko bat jasotzen dute, eta, nolabait, botere publikoek gai horren inguruan duten jarrera ofizialaren berri ematen dute. Berdintasun-planetan, ekintza positibo zehatzak eta gizarte-berdintasuna sustatzeko neurri orokorrak jasotzen dira. Diskriminazioari aurre egiteko bide hori indarrean dago ez bakarrik botere publikoen kasuan, baita eremu pribatuan ere, Emakumeen eta Gizonen 4/2005 Legean jasotzen den gisan.

Gaur egun, zeharkakotasunaren edo *mainstreaming*aren ikuspegiak garrantzi handia hartu du; horrek esan nahi du berdintasun-printzipioa ikuspegi orokor batekin aplikatu behar dela, eta iritsi behar dela instituzioek eta administrazio publikoek beren antolamendu-maila guztietan egiten dituzten politika, programa eta ekintza guztietara. *Mainstreaming* kontzeptua Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak proposatu zuen lehen aldiz, 1987an. Gero, mundu-mailako estrategia gisa onartu zen esplizituki, Aukera Berdintasunaren alorreko Ekintza Komunitarioaren III. Programan (1991-1995). Esan ohi da *mainstreaming*a 1995ean sartu zela behin betiko nazioarteko agenda politikoan, Beijing-en egin zen Emakumei buruzko IV. Nazioarteko Konferentzian onartutako Ekintza Plataformaren bidez, non esplizituki eskatu baitzitzaien gobernuei genero-ikuspegia beren jarduketetan txertatzeko.

Espainiako eta Euskal Herriko instituzioek berehala hartu zuten beren gain *mainstreaming*aren estrategia, eta bi legeren onarpenarekin finkatu zen: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, Euskadin, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorra lortzeko 3/2007 Legea, espainiar estatuan. Horien bidez, eta Europako Kontseiluak adierazi bezala, konpromiso hau hartu zuten: *“Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, neurri politikoak hartzeko orduan zeresana duten aktore guztiek politika, maila eta etapa guztietan sar dezaten genero-berdintasunaren ikuspegia”* (Europako Kontseilua, Emakumearen Institutuan jasoa, 1999: 26). Beraz, arlo politiko guztiek, halaber kulturarenak, aintzat hartu behar dute genero-ikuspegia, ez bakarrik beren jarduketetan, baita diagnostikoetan eta ebaluazioetan ere. Estatuko eta autonomia-erkidegoko legediak beste urrats bat eman du, kulturaren arloan zenbait alderdi zehazteko.

Horrela, bada, genero-ikuspegia kontuan hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorra lortzeko 3/2007 Lege Organikoaren 26. artikuluan sormen eta ekoizpen artistiko eta intelektualean berdintasuna bermatzeko irizpideak

jasotzen dira, eta artikulua horren bigarren atalean esaten da kultura-kudeaketaren sistema egituratzen duten erakunde publiko guztiek garatu beharko dituztela *"emakumeen ekoizpen eta sormen intelektual, artistiko eta kulturalean dauden desberdintasun-egoerak zuzentzeko beharrezkoak diren ekintza positibo guztiak"*. Zehazki, neurri hauek aipatzen dira:

- 1 Kulturaren emakumeen sustapen bereziaren alde egiteko ekimenak izatea, eta emakumeen bereizkeria, egiturazkoa edota difusoa borrokatzea.
- 2 Emakumearen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektuala laguntzeko politika aktiboak; politika horiek izaera ekonomikodun pizgarrietan oinarrituko dira, aukera-berdintasun eragingarrirako baldintzak sortzeko helburuarekin.
- 3 Eskaintza artistiko eta kultural publikoari dagokionez, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea.
- 4 Organigrama artistiko eta kulturalean dauden organoetan, halakoak kontsultakoak, zientifikoak nahiz erabaki-hartzaileak izatea gorabehera, ordezkartza orekatua errespetatu eta bermatzea.
- 5 Emakumeen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualari begira ekintza positiboko neurriak hartzea, elkartruke kultural, intelektual eta artistiko nazionala nahiz nazioartekoa ahalbidetuz, eta hitzarmenak sinatzea antolakunde eskudunekin.

Era berean, Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak kultura-ekintzen alorreko berdintasuna arautzen du 25. artikuluan. Kasu horretan ere, oro har esaten da euskal herri-administrazioek –tokikoek, foralek eta autonomikoek–, bakoitzak bere eskumen-eremuan, sexuaren ziozko bereizkeria saihesti behar dutela, eta sustatu behar dutela emakumeek eta gizonen parte-hartzeko aukera izatea eta partaidetza orekatua izatea kultura-jarduera guztietan. Zehazkiago, legeak bete beharreko lau ekintza aipatzen ditu, azken biak osorik kirol-arloari dagozkionak. Kirola alde batera utzita, kulturaren alorrean bi debeku zehazten ditu: 1. Debekatu egiten da emakumeek eta gizonen berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten

edo oztopatzen duten kultura-jarduerak antolatzea eta egitea gune publikoetan; 2. Kultura-jardueraren batean sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, euskal herri-administrazioek ezin izango diote jarduera horri inolako laguntzarik eman, eta administrazio horien ordezkariak ezin izango dute jarduerotan parte hartu administrazioaren ordezkari gisa.

Euskadin, emakumeek eta gizonen kulturaren alorrean duten parte hartzeari dagozkion ekintza batzuk daude adierazita 2018-2021 epealdirako zehaztutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean; esate batera, gobernu onaren (GO) xedeetan eta esku-hartzeko ardatzetan (ARDATZA) aplikatzen diren ekintza hauek. Ez dira kulturaren ekoizpenaren alorrari edo liburutegizari dagozkien ekintza espezifikoak; oro har, ekintzen helburua da bermatzea emakumeen parte-hartzea organo erabakitzaileetan. Halere, bada salbuespen bat, 2.2 helburua, zeinaren adierazlea kulturaren alorrari baitagokio espezifikoak, eta ez dio erreferentziarik egiten ekoizpen industrialari.

Lege-esparru bat eta berdintasun-planak existitzen diren arren, argialetxeen alorrean genero-ikuspegiak egiten diren eskaerak elkarte itxura hartu dute autonomia-erkidego batzuetan; esate batera, Asturiasen Liburuaren Emakumeen Elkarteak sortu da, 2018an abiatutako liburuaren emakumeen mugimendurekin<sup>1</sup> lotua, argialetxeetako langile guztiak biltzen dituen (itzultzaileak, irudigileak, administratzaileak, editoreak eta abar). 2018ko eta 2019ko manifestuetan aurkezturiko eskaerak hiru puntu nagusitan laburbil daitezke: soldata-arrakala, kristalezko sabaia eta lan-baldintzak (kontziliazioa eta jazarpena).

Lege-esparruarekin eta *mainstreaming*-printzipioarekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak genero-ikuspegiarekin duen konpromisoa argi eta garbi jasota dago Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren memorian, kultura sustatzeko programaren barruan. Honela dio: *"EAEko kultura heldutasun eta kalitate handiko aro batean da, eta berebiziko garrantzia du kulturaren balio-kate osoan emakumeak izateak. Jaurlaritzak errealitate hori ikusgarri egiteko eta indartzeko konpromisoa hartu du. Apustu irmoa den seinale dira laguntza-lerroen deialdietan txertatutako irizpideak, ez horrenbeste aurrekontuan sartutako kontu-sailen epigrafeak. Gure ekintza guztietan egiten da euskararen eta genero-berdintasunaren alde (...), kultur politika orokorraren muina dira eta."*

<sup>1</sup> <https://lasmujeresdellibroparamos.wordpress.com>

GO14. Emakumeek eta gizonen zuzendaritza-organo eta/edo pluripertsonaletan ordezkari izatea bermatzea.

GO14.2 Emakumeen eta gizonen ordezkari izatea duten epaimahaien edo antzeko organoen ehunekoa handitzea.

Emakumeen eta gizonen ordezkari izatea bermatzea sustatzeko klausula bat duten funts kulturalak eta/edo artistikoak eskuratzeko eta sariak emateko epaimahaien ehunekoa.

Adierazlea

Emakumeen eta gizonen ordezkari izatea duten funts kulturalak eta/edo artistikoak eskuratzeko eta sariak emateko epaimahaien ehunekoa.

1. ardatza  
2.2.

Emakumeek gizartean parte hartzen duten eremu eta gune guztietan.

2.2.2

Emakumeek eta gizonen ikaskuntzako eta aisiako baliabideetan, artean, kulturean eta jaietan parte-hartzean dagoen genero-desoreka murriztea.

Adierazlea

Obrak erakusgai jartzen dituzten, programazioetan esku hartzen duten (komisarioak eta adituen beste profil batzuk), hitzaldiak eta mintegiak ematen dituzten, obrak bildumetan dauzkaten eta obrak EAEko museoetan eta arte- eta/edo kultura-zentroetan saltzen dituzten emakumeen eta gizonen kopuruaren bilakaera.

1. ardatza  
2.3.

Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea.

2.3.3

Elkarte-mugimenduko, irabazi asmorik gabeko erakundeetako –kulturearen, kirolaren eta aisialdiaren arlokoak barne-, erakunde politikoetako, sindikatu etako eta enpresa-erakundeetako erabaki postuetan eta guneetan dauden emakumeen kopurua handitzea.

Adierazlea

Irabazteko asmorik gabeko erakundeetako, fundazioetako eta interes orokorreko elkarteetako buru diren emakumeen kopuruaren bilakaera, erakunde motaren arabera.



Liburuak ekoizteari dagokionez, Kultura Sustatzeko Zuzendari-tzak bi lerro ditu dirulaguntzetarako: gaztelaniazko literaturaren produkzio editorialari zuzendutako dirulaguntzak eta euskarazko literaturaren produkzio editorialari zuzendutakoak. Dirulaguntzen xedea da argitaletxeen urteko edizio-planetatik eratorritako argitalpen-kostuen zati bat estaltzea, berdin euskarazko literatura-argitalpenena zein gaztelaniazkoena. 2019ko dirulaguntza horiek arautzen dituen araudietan jasotzen denaren arabera, eskaerak aztertzen dituen batzordeak osaera paritarioa izan behar du. Dirulaguntzak emateko, batzorde horrek irizpide hauei jarraitu behar die:

- Edizio Planean sartutako lanen kultura-arloko interesa (lanen kalitatea, lanen edukia, egileen ibilbidea eta Euskadik edota bertako biztanleek bizi duten errealitate kultural, sozial eta linguistikorekiko lotura),
- Eskaera egin duen argitaletxearen katalogoa eta ibilbidea (azken hamar urteetan argitaratutako lanak, azken hamar urteetako berrargitalpen-kopurua eta lanen banaketa),
- Edizio Planaren ezaugarri teknikoak eta aurrekontuaren egokitasuna.

Euskadiko argitaletxeen egoeraren eta literatura-ekoizpenaren arabera, generoaren ikuspegitik agian gomendagarria litzateke laguntza horietan irizpide batzuk sartzea, edizio-planari edo argitaletxearen ezaugarriei dagokienez.

Liburu-dendei dagokienez, Kultura eta Kirola Ministerioak 120.000 € eta 310.000 € zuzendu zituen 2017an eta 2018an, hurrenez hurren, kulturaren balioa handitzeko eta liburu-dendak berritzeko. Irizpideetan ez da berariazko neurririk aipatzen emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez. Kontuan hartzeko elementutzat jotzen dira:

*“aurkezturiko proiektuaren edo buruturiko jardueraren kalitate teknikoa, esperientzia, egindako ibilbidea edo espezializazioa, berrikuntza artistikoa, bideragarritasun ekonomikoaren ezaugarriak, eragin soziala eta jada abiatutako jarduerak”* (BOE, 275: 95218). Dirulaguntza gehienak liburu-denden webguneak modernizatzeko erabili dira.



**INDUSTRIAREN  
AZTERKETA  
KUANTITATIBOA**

Alor baten egoera aztertu nahi denean genero-ikuspegia aintzat hartuta, bigarren mailako iturri nagusia Emakundek urtero egin eta Eusko Legebiltzarrean aurkezten duen txostena da, emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak jasotzen dituena. Nolanahi ere, liburugintzaren eta liburu-denden alorrak oso sektore espezializatuak dira, eta horietan ez da sexuari buruzko informazio berezirik jasotzen modu sistematikoan, nahiz eta horrek egoera hobeto jasoko lukeen diagnostiko bat egiteko aukera emango lukeen. Hurrengo taulan, txosten horretan bildutako datu batzuk erakusten dira, liburugintzaren errealitatearen alderdi batzuetan argi egiteko balio dezaketena.

#### ONURA PUBLIKOKO ETA IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTEEN GOBERNU-ORGANOAK, XEDEAREN ARABERA. 2017

2017an, 219 elkarte zeuden erregistratuta, kulturaren, kirolaren eta gazteen alorrekoak. Horietan, emakumeen presentzia % 33,8koa zen.

#### ERREGIMEN BEREZIKO IRAKASKUNTZAN MATRIKULATURIKO IKASLEAK, MODALITATEAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2016-17

Musikan izan ezik, non emakumeen presentzia % 55,7koa baita, gainerako alorretan matrikulaturiko 4 pertsonatik 3 baino gehiago emakumeak dira: dantza (% 92,7); arte plastikoak eta diseinua (% 73,3); goi-mailako artistikoa, diseinuaren alorrean (% 76,7); goi-mailako arte dramatikoak (% 73,3).

#### ENPRESETAKO PRESTAKUNTZA-EKIMENETAKO PARTE-HARTZAILEAK, SEXUAREN ETA EKINTZA-FAMILIAREN ARABERA. EAE 2017

Helduen hezkuntzari dagokionez, emakumeen presentzia txikiagoa da kulturaren eta artearen alorrean: Arteak eta Eskulagintza, % 47,7; Arte Grafikoak, % 27,4 besterik ez.


Liburugintzaren gaineko beste informazio-iturri garrantzitsu bat ere badago, genero-ikuspegiaren arabera adierazle batzuk biltzen dituena: Euskal Autonomia Erkidegoko Argitalpeni buruzko XXIII. Txostena – Barne Merkataritza 2017. Txosten horretan, euskal argitaletxeetako langileen kopuruak daude jasota, sexuaren arabera berezirik. Genero-

ikuspegia kontuan hartzen duen azterketa osatzeko, beste iturri batzuk ere erabili ditugu, hala nola EUSTAT, eta adierazle berriak sortu ditugu, aintzat harturik laguntza ekonomikoaren ebazpenak edo argitaletxeen elkarten webguneetan aurkitutako informazioa.

## ARGITALETXEAK

Aurkezpenean esan bezala, lan hau egiteko liburugintzaren bi adarrak hartu ditugu kontuan, edizio-lana eta liburu-denden bidezko merkaturatzea. Lehenari dagokionez, liburugintzaren ezaugarri nagusietako bat aldakortasuna da. Parte hartzen duten erakunde-kopuruari dagokionez, industria-sektore hau asko aldatzen da. 1. grafikoan ikus daitekeen bezala, azken 20 urteetan denetarik egon da: 2008an, argitaletxeen kopurua ez zen iristen 150era; 2011n, berriz, 170 argitaletxe baino gehiago zeuden. Azterketa honetan, 2017 hartu dugu erreferentziazko urte gisa; garai hartan 152 argitaletxe zeuden: 13 Araban (10 Gasteizen), 63 Gipuzkoan (40 Donostian) eta 76 Bizkaian (43 Bilbon).

1. grafikoa: EAEko argitaletxeen kopurua 2008-2018



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Aldakortasun eta bolumen horiek direla-eta, ez da erraza aztertzea zer egoeratan dauden emakumeak eta gizonak argitaletxeetan. Halere, azterketa zedarritzeko, hainbat irizpide zehaztu ditugu. Lehenik eta behin, kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzak gaztelaniazko eta euskarazko literatura-argitalpenetara zuzentzen dituen dirulaguntzak jaso

dituzten argitaletxeak. Dirulaguntza horiek jaso ahal izateko, argitaletxeek nolabaiteko ibilbidea izan behar dute, gutxieneko argitalpen-kopuru bat eta abar. Euskarazko atalean, 511.800 euro ematen dira guztira, eta garrantzizkotzat jo dira aztertutako hiru deialdietako (2016-2018) batean laguntza jaso dutenak. Baldintza hori hamar argitaletzek betetzen dute, eta horietako hirutan emakumeak dira editore nagusiak.

**1. Taula:** Argitaletxeak, euskarazko literatura-lanak argitaratzeagatik jasotako dirulaguntzen ehunekoaren (%) arabera. (2016-2018)

Argitaletxea	Editorea	2016	2017	2018
Alberdania	Gizona	0,0	0,0	4,1
Ibaizabal	Gizona	6,0	4,5	4,5
Elkarlanean	Hainbat	26,5	27,4	22,4
Erein	Gizona	17,3	14,9	13,8
Loyola komunikazio-taldea	Gizona	4,3	3,8	3,7
Estrata (Susa)	Emakumea	3,8	6,7	4,4
Hualde Alfaro	Gizona	6,3	6,9	4,1
Pamiela	Gizona	11,5	14,3	17,0
Ttarrantalo	Emakumea	5,4	7,4	6,9
Txalaparta	Gizona	7,7	3,8	3,8
Beste batzuk	-	11,2	10,3	15,1
-	-	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2016ko abuztuaren 18ko Ebazpena (EHAA, 2016ko irailaren 14a), 2017ko irailaren 14ko Ebazpena (EHAA, 2017ko irailaren 18a) eta 2018ko urriaren 2ko Ebazpena (EHAA, 2018ko urriaren 17a)

Gaztelaniazko literatura-lanen ekoizpenari zuzendutako dirulaguntzak 9 eta 13 argitaletxeren artean banatu dira azken hiru deialdietan (2016-2018), baina finantzazioaren ia % 70 lau argitaletzek jaso dute, zeinetan editore nagusiak gizona izatekoak baitira.

**2. Taula:** Argitaletxeak, gaztelaniazko literatura-lanak argitaratzeagatik jasotako dirulaguntzen ehunekoaren (%) arabera. (2016-2018)

Argitaletxea	Editorea	2016	2017	2018
Astisendo (Astiberri)	Gizona	45,3	37,9	37,9
Beta III Milenio	Gizona	8,9	6,4	6,4
Desclee De Brouwer	Gizona	7,9	9,1	9,1
Erein	Gizona	15,2	14,0	14,0
Beste batzuk	-	22,7	32,6	32,6
-	-	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2016ko abuztuaren 18ko Ebazpena (EHAA, 2016ko irailaren 14a), 2017ko irailaren 14ko Ebazpena (EHAA, 2017ko irailaren 18a) eta 2018ko urriaren 2ko Ebazpena (EHAA, 2018ko urriaren 17a)

Liburugintza genero-ikuspegiarekin aztertzen dugunean, kontuan hartu beharreko bigarren ezaugarria argitaletxeen tamaina da, hau da, argitaletxeen langile-kopurua. Lan hau egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko 103 argitaletxetako informazioa jaso dugu; erdia kasik, % 47,6, langile bakarrekoa da, eta argitaletxeen % 9,7an soilik daude 10 langile edo gehiago.

**3. Taula:** Argitaletxe-kopurua, langile-kopuruaren arabera (2017)

	Kopurua	%
<b>Guztira</b>	103	100,0
0-1	49	47,6
2-4	31	30,1
5-9	13	12,6
10 edo gehiago	10	9,7

Iturria: EAEko Argitalpenen buruzko XXIII. Txostena - Barne Merkataritza 2017



Batez beste, argialetxe bakoitzean 4,4 pertsona ari dira lanean; horrek aldakortasuna azaldu dezake, eta azaldu dezake, halaber, erakundearen ezaugarri nagusi bat langileen arteko konfiantza izatea. Ez dira industria handiak, hautapen-prozesu konplexukoak; langileak hautatzerakoan, gizarte-harremanak hartzen dira kontuan, nagusiki. EAEko Argitalpenei buruzko 2017ko Txostenak funtzioen arabera sailkatzen ditu argialetxeetako langileak, baina sailkapen hori ez da betetzen langile bakarreko edo biko argialetxeen % 50an baino gehiagotan. Txostenean jasotako datuen arabera, argialetxeetako langileen % 50,6 emakumeak dira; argialetxeetan administrazio-lanez eta giza baliabideez arduratzen diren langileen artean, berriz, portzentaje hori % 57,3koa da.


Argialetxeetako langileen % 50 emakumeak badira ere, kopuru hori txikia dela esan daiteke, kontuan hartuta produkzio editorialerako langileak kontratatuzko iturri potentziala letrekin eta literaturarekin lotutako graduatan dagoela. Arlo horietako unibertsitate-ikasketetan, % 60 baino gehiago emakumeak dira, bi salbuespenekin: Euskal Filologia eta Kazetaritza; ostera, Itzulpengintza eta Interpretazioa graduatan eta Hizkuntza Modernoetan, 10 ikaslelik 8 emakumeak dira. Oro har, ikasketak-erlora feminizatuak dira.

#### 4. Taula: Argialetxe pribatuetako langile-kopurua, sexuaren eta funtzioaren arabera (2017)

	Guztira		Emakumeak		
		%		%	%
<i>Guztira</i>	451	100	228	100	50,6
<i>Produkzio editoriala</i>	214	47,5	106	46,5	49,5
<i>Produkzio editoriala formatu elektronikoa</i>	53	11,8	14	6,1	26,4
<i>Jarduera komertziala eta publizitatea</i>	96	21,3	42	18,4	43,8
<i>Administrazioa eta giza baliabideak</i>	131	29	75	32,9	57,3
<i>Kanpo-merkataritza</i>	10	2,2	5	2,2	50,0

Iturria: EAEko Argitalpeni buruzko XXIII. Txostena – Barne Merkataritza 2017


#### 2. grafikoa: Euskadin letrekin eta literaturarekin lotutako graduatan matrikulatuta dauden emakumeen ehunekoa, 2016-17



Iturria: Eustat. Unibertsitatearen estatistika


2016-2017 ikasturteko datuak ez dira ezohikoak; izan ere, urteak dira gradu horiek feminizaturik daudela. 2010-2011 ikasturtean gradu berriak ezarri ziren, goi-mailako ikasketak Europako eremura egokitzeko; orduz geroztik, emakumeen ehunekoa bera edo handiagoa da gradu hauetan: Ingeles Ikasketak; Ingeles Ikasketak: hizkuntza, literatura eta kultura; eta Euskal Ikasketak. Hori ikus daiteke 3. grafikoa.

### 3. Grafikoa: Gradu desberdinetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa. Bilakaerari buruzko datuak




### 4. Grafikoa: Gradu desberdinetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa. Bilakaerari buruzko datuak

Gauza bera gertatzen da hizkuntzekin, bi salbuespenekin: Euskal Hizkuntza eta Kultura, batetik, eta Gaztelania: Hizkuntza eta Literatura, bestetik; bi horietan, emakumeen ehunekoak behera egin du, oraindik ere % 60 baino handiagoa den arren.




Salbuespen dira filologiako graduak, non, aurreikus zitekeen bezala, jaitsi egin baita feminizazio-maila; euskal filologian matrikulatutako emakumeen portzentajea % 60 baino txikiagoa da.

### 5. Grafikoa: Gradu desberdinetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa. Bilakaerari buruzko datuak



Emakumeek Itzulpengintza eta Interpretazioa graduan eta Kazetaritzakoan izan duten bilakaera aldarokorra da aztertutako urteetan, baina kontrakoa. Itzulpengintzan eta Interpretazioan, 10 ikaslelik 8 emakumeak dira, eta Kazetaritzan, berriz, jaitsi egin da portzentajea; orain, 10 ikaslelik 6 dira emakumeak.

### 6. Grafikoa: Gradu desberdinetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa. Bilakaerari buruzko datuak



Argialetxeen aldakortasuna dela-eta, zaila da zuzendaritzetan diharduten emakumeen eta gizonen datu zehatzak jakitea. Halere, datu batzuek erakusten dute parekotasun-printzipiotik urrun daudela, enpresen % 40 inguruk soilik betetzen baitu printzipio hori, argialetxeek Euskadiko editoreen elkarteetan duten ordezkari-tza kontuan hartuta. Bi elkarte bereiz daitezke, Euskal Editoreen Elkarte eta Euskadiko Editoreen Elkarte.

Euskal Editoreen Elkarte 1984an sortu zen, euskaraz argitaratzen duten argialetxe publiko zein pribatuak biltzeko asmoarekin. Webgunean azaltzen dutenaren arabera, Zuzendaritza Batzordeak osaera parekidea du; presidentea Joxemari Sors (Elkar) da, eta presidenteordea, Pello Elzaburu (Pamiela). Hiru batzordekideetatik bi emakumeak dira, Itziar Osa (Ibaizabal) eta Idoia Gonzalez (Erein), eta hirugarrena gizona, Mikel Soto (Txalaparta). Halere, argialetxeetako ordezkari gehienak gizonak dira, eta ordezkarien % 30 bakarrik dira emakumeak.

#### 5. Taula: Argialetxeak eta Euskal Editoreen Elkarteetan duten ordezkari-tza

Argialetxea	Ordezkaria	Argialetxea	Ordezkaria
Alberdania	Gizona	Igela	Gizona
Denonartean	Gizona	Ikas-Elkar	Gizona
Elhuyar	Emakumea	Labayru	Gizona
Elkar	Emakumea	Mettok	Gizona
Erein	Gizona	Mezulari	Emakumea
Gaumin	Gizona	Etor-Ostoa	Gizona
Giltza-Endebé	Emakumea	Pamiela	Gizona
Euskal Herriko Ikastolak	Gizona	Ttartalo	Emakumea
Ibaizabal	Gizona	Txalaparta	Gizona
Idatz	Gizona	UEU	Emakumea

Fuente: <http://www.editoreak.eus/es/bazkideak/>

#### 6. Taula

	Emakumeak		Gizonak		Guztira
Bazkideak	6	% 30	14	% 70	20
Batzordea	2	% 40	3	% 60	5

Iturria: <http://www.editoreak.eus/bazkideak/>

Euskal Editoreen Elkarteak liburuak gomendatzeko gida bat argitaratzen du urtean behin. Helduentzako literatura-lanak gomendatzen dituen 2017ko gidan 21 lan bildu zituzten, horietatik 10 emakumeek idatziak. Haurrentzako eta Gazteentzako literatura-lanak gomendatzen dituen gidan, ostera, 33 lan jaso zituzten; horien artean, 15 lan emakumeek idatziak ziren, 17 lan gizonen idatziak, eta lan bat emakume eta gizon banak idatzia.

#### 7. Taula: Euskal Editoreen Elkartearen 2017ko literatura-gidetan bildutako idazleen kopuruak, sexuaren arabera

	Helduak			Haurrak eta Gazteak		
	E	G	Guztira	E	G	Guztira
Elkar	4	1	5	4,5	0,5	5
Erein	2	3	5	2	3	5
Gaumin	1	2	3	0	5	5
Pamiela	3	2	5	2	3	5
Txalaparta	0	3	3	2	0	2
Giltza	-	-	-	2	3	5
Ibaizabal	-	-	-	2	3	5
Ttartalo	-	-	-	1	0	1
Guztira	10	11	21	15,5	17,5	33
%	47,6	52,4	100	47	53	100

Iturria: Euskal literatura-liburuak, haur eta gazteentzako gida;

Euskal Editoreen Elkarteak osatzen duten argitaletxeen zati handi bat Euskadiko Editoreen Elkarteko kide ere bada, zeinaren xedea baita Euskadiko argitaletxeen interes profesionalak babestea eta liburuak sustatzea. Gaur egun, José Manuel Diaz (Loiola Komunikazio Taldea) da elkarteko presidentea. Era honetako elkarteetan ere, emakumeen presentzia ez da ohikoa; Espainiako Editoreen Elkartearen, zuzendaritzan 11 pertsona daude, eta bakarra da emakumea, Núria Cabutí (Penguin Random House).


**8. Taula:** Argitaletxeak eta haien ordezkariak Euskadiko Editoreen Elkartearen

Argitaletxea	Ordezkaría	Argitaletxea	Ordezkaría
A fin de cuentos	-	Editorial Txalaparta	Joxe Mari Esparza
Aise Liburuak	Iñaki Egaña	Euskaltzaindia	-
Alai Argitaletxea	-	Fulgencio Pimental	-
Alberdania	Jorge Jimenez	Giltza Grupo Edebé	Antonio Garrido
Artezblai	Carlos Gil	G. Albor-Cohs	Ángela Mangaz
Astiberri	Javier Zalvidegoitia	G. Comunicación Loyola	Antonio Allende
Bainet	Iñaki Burutxaga	Ibaizabal	Sabin Gorrotxategi
Consonni	-	Idatz	Sebas Irastorza
Edez	Miguel Angel Ortíz	Ikaselkar	Mikel G. Arrizabalaga
Ed. Beta III	Antonia Delgado	Ikasmina	Antonio Navarrete
Ed. Fortuna	Enrique Hurtado	La Fertilidad de la Tierra	-
Ed. Franciscanas Arantzazu	Joxe María Arregi	Pamiela	Txema Aranaz
Ed. Saldaña	Adolfo Saldaña	Sv. Redaccionales Bilbainos	Iñigo Barrenechea
Editorial Alt Autores	-	Sua Edizioak	Javier Pascual
Desclée de Brouwer	Javier Gogeoascoechea	Ttarrtalo	Olatz Arozena
Editorial Donostiarra	Fco Javier Rodríguez	Txertoa	Martín Anso Blanco
Editorial Elkar	Olatz Osa	Deustoko unibertsitatea	Javier Torres Ripa
Editorial Erein	Iñaki Aldekoa	Euskal Herriko Unibertsitatea	Teresa Agirreazaldegí
Editorial Minis	-	Zubia Argitaletxea	Joseba Sancho

## 2. LIBURU-DENDAK

Lehenago esan dugun bezala, liburugintzaren bigarren adarra liburu-dendek osatzen dute. Kopuruari dagokionez, liburu-denden bilakaera ez da argialetxeena bezain aldakorra. Egia esan, azken urteetan gero eta liburu-denda gutxiago daude, grafiko honetan ikusten den bezala:

7. grafikoa: EAEko liburu-denden kopurua 2008-2018



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Alde nabarmenak daude liburu-denden kopuruari eta establezimendu horiek hiriburuetan duten kontzentrazioari dagokienez. Araban 40 liburu-denda daude (34 Vitoria-Gasteizen); Gipuzkoan, 125 (43 Donostian); eta Bizkaiari, 161 (60 Bilbon). Gainera, liburu-denden kontzentrazio handia dago beste zenbait udalerritan, hala nola Irunen, Pasaian, Erreterian eta Tolosan, Gipuzkoari dagokionez, eta Barakaldon, Basaurin, Durangon, Galdakaon, Getxon, Portugaleten eta Santurtzin, Bizkaiari dagokionez; udalerririk horietan, 5 liburu-denda baino gehiago daude 2018an.

Liburu-denden kasuan, bada aldatzen ez den ezaugarri bat: emakumezko langileen proportzioa. Argialetxeak ez bezala, liburu-dendak emakumeen beharlekuak izan dira tradizionalki. Azken urteetan, 10 langiletik 7 emakumeak dira liburu-dendetan.

9. Taula: Enplegu absolutua bilakaera Euskadiko liburu-dendetan, sexuaren arabera (2009-2015)

Urtea	Guztira	Emakumeak	
	Kop.	Kop.	%
2009	350,0	234,3	66,9
2011	308,6	210,4	68,2
2013	263,0	171,0	65,0
2015	301,7	207,6	68,8

Iturria: EAEko Argitalpenei buruzko XXIII. Txostena – Barne Merkataritza 2017

10. Taula: Enplegu absolutua liburu-dendetan, funtzioen eta sexuaren arabera (2015)

	Guztira	Emakumeak	
	Kop.	Kop.	%
Zuzendaritza	109,9	66,2	60,6
Teknikariak	57,5	35,9	62,4
Administrazioa	94,7	79,4	83,7
Beste batzuk	40,3	26,1	64,8
Guztira	301,7	207,6	68,8

Iturria: EAEko Argitalpenei buruzko XXIII. Txostena – Barne Merkataritza 2017

### 3. ARGITALETXEEN EKOIZPENA, GENERO-IKUSPEGIA AINTZAT HARTUTA (2017)

EAEko Argitalpenei buruzko XXIII. Txostenaren arabera, 2017an 3.436 izenburu editatu ziren. Txosten horretan, gaia eta hizkuntza aztertu dira, baina ez egiletasuna. Informazio hori genero-ikuspegiarekin osatzeko, egiletasuna eta itzulpen-lana aztertu ditugu. Argitaletxeen aldakortasuna dela-eta, haien literatura-argitalpenak aztertzeko hautaketa bat egin dugu. Laginketa egiteko, zenbait irizpide zehaztu ditugu:

- 1 Argitaletxearen sendotasuna: 100 ISBN baino gehiago dituzten argitaletxeak hartu ditugu kontuan, guztiak ere Euskal Autonomia Erkidegokoak. Guztira, 65 argitaletxe.
- 2 2017an jardunean zeuden argitaletxeak hautatu ditugu, hau da, urte hartan ISBNa duen izenbururen bat argitaratu duten editorialak.
- 3 Alde batera utzi ditugu egiletasun aitorturik gabeko lanak; Zubia argitaletxeak, adibidez, 342 izenburu editatu zituen 2017an, baina ezinezkoa da lan horien egiletasuna aztertzeko genero-ikuspegiarekin.

Aukeratze-prozesua eginda gero, 27 argitaletxeren literatura-argitalpenak aztertu ditugu, eta, horretarako, datu hauek bildu ditugu: egilea, itzultzailea (hala badagokio), hizkuntza, gaia, formatua (hiru multzotan sailkatuta: papera, kartografia eta elektronikoa), prezioa eta jatorrizko lana/itzulpen-lana aldagaia. Azterketan ez ditugu kontuan hartu ilustratzaileak. Egiletasunari dagokionez, kasu hauek bereizi ditugu: egile bakarrekoak, bi egilekoak eta kategoria orokor bat, bi egile baino gehiago dituzten lanak eta pertsona ez-fisikoez eginak direnak biltzen dituenak.

Izenburuak hautatzeko, ISBN erregistroa erabili dugu. Izenburu batzuk formatu desberdinetan argitaratu dira (paperean eta formatu digitalean), eta, beraz, bi erregistro daukate; kasu horietan, guk ere birritan jaso ditugu gure datu-basean. Alorrari dagokion kode bat baino gehiago duten liburuaren kasuan, berriz, kode orokorra erabili dugu. 11. taulan, laginketaren emaitza ikus daiteke.

**11. Taula:** Euskadiko literatura-argitalpenen azterketaren lagina. 2017

	Arte	Bio- grafia	Hiz- kuntza	Lite- ratura	Fik- zioa	Humani- tatea	Gizar- tea	Beste batzuk	IJ Ezagun	IJ Fikz	IJ BB	IJ Hezk	Guztira
Alberdania	-	3	-	-	3	-	-	0	2	2	0	-	10
Astiberri	-	1	-	-	67	-	1	0	-	1	0	-	70
Desclee de brouwer	-	-	-	-	-	18	29	23	5	5	0	-	80
Donostiarra	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	0	22	23

	Arte	Bio- grafia	Hiz- kuntza	Lite- ratura	Fik- zioa	Humani- tatea	Gizar- tea	Beste batzuk	IJ Ezagun	IJ Fikz	IJ BB	IJ Hezk	Guztira
Edex	-	-	-	-	-	5	22	7	21	-	7	18	80
Ed. Beta III milenio	3	4	1	11	27	10	6	5	-	-	0	-	67
Ed. Franciscanas	2	2	-	1	-	5	-	0	-	1	0	-	11
Ediciones Saldaña	-	-	-	-	-	-	-	0	214	43	1	-	258
Elkarlanean	-	5	12	3	34	11	13	1	-	31	2	-	112
Erein	1	3	-	9	45	1	5	0	-	11	1	4	80
Erroteta	1	-	-	3	2	6	-	0	-	-	1	-	13
Gomylex	-	-	-	3	1	2	1	13	-	-	0	-	20
Ibaizabal	-	-	-	-	13	-	-	0	11	19	0	123	166
Susa	-	-	-	9	6	-	1	0	-	-	0	-	16
Ttarttalo	-	-	-	-	2	-	-	0	30	5	11	1	49
Txertoa	-	2	-	-	10	1	-	1	-	-	0	-	14
Beste batzuk	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	45
Guztira	8	22	13	43	210	64	85	67	283	119	23	177	1114

Iturria: txostenaren egileak prestatua, ISBNren erregistrotik abiatuta.

Datu-basean, 2017ko 1.114 izenburu aztertu ditugu. 581 izenburu egile bakarreko lanak dira: 263 bi egilekoak, eta 270 bi egile baino gehiagokoak edo pertsona ez-fisikoek eginak. Egile bakarreko 581 argitalpenen artean, % 34,1 emakumeek idatziak dira. Fikzioaren barruan, helduentzako literatura-lanen % 37,5 emakumeek sortuak dira, eta haur eta gazteentzako % 40. Emakumeak gai bakarrean dira % 50 baino gehiago: haur-ikaskuntzan, non ia % 68 diren. Nolanahi ere, haur-didaktikako

argitalpenetan % 34 baino gutxiago dira emakumeak. Bestalde, % 20 baino gutxiago dira Humanitateetan eta Historian (% 16,7) eta Zuzenbidean (% 10). Beste arlo batzuetan, emakumeak ez dira ageri egile bakar gisa (Arteak, Hizkuntza, Ekonomia, Zientziak, Teknologia, Bizitzeko era, Kirola).

12. Taula: Egile bakarreko lanak, alorraren eta egilearen sexuaren arabera. 2017

	GUZTIRA	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Kop.	Kop.	%	Kop.	%
Arteak	6	0	0,0	6	100,0
Biografiak eta egiazko gertaerak	15	5	33,3	10	66,7
Hizkuntza	6	0	0,0	6	100,0
Literatura eta Literatura Ikasketak	40	15	37,5	25	62,5
Fikzioa eta antzeko alorrak	168	47	28,0	121	72,0
Humanitateak	48	8	16,7	40	83,3
Zientziak eta Giza Zientziak	40	18	45,0	22	55,0
Ekonomia, Finantzak...	4	0	0,0	4	100,0
Zuzenbidea	10	1	10,0	9	90,0
Lurraren Zientziak	2	0	0,0	2	100,0
Teknologia, Ingeniaritza, Nekazaritza	2	0	0,0	2	100,0
Konputazioa eta Informatika	1	1	100,0	0	0,0
Osasuna eta Garapen Pertsonala	17	7	41,2	10	58,8
Bizitzeko era, Kirola	9	0	0,0	9	100,0
Haurrak: ikaskuntza	59	40	67,8	19	32,2
Haurrak: fikzioa	80	32	40,0	48	60,0
Haurrak: beste batzuk	6	2	33,3	4	66,7
Haurrak: didaktika	62	21	33,9	41	66,1
Haurrak: gai pertsonalak eta sozialak	6	2	33,3	4	66,7
Guztira	581	198	34,1	382	65,7

Iturria: txostenaren egileak prestatua, ISBNren erregistrotik abiatuta

Egile bakarreko 581 lanen artetik, 403 jatorrizkoak dira, eta 178, berriz, itzulpenak. Emakumeek jatorrizko lanen % 29,8 bakarrik idatzi dituzte. Itzulpenetan, ostera, oreka handiago dago: % 44,4 emakumeek eginak dira.



**13. Taula:** Egile bakarreko lanak, jatorrizkoa/itzulpena aintzat hartuta eta egilearen sexuaren arabera. 2017

	GUZTIRA		EMAUMEAK		GIZONAK	
	Kop.		Kop.	%	Kop.	%
Jatorrizkoak	403		120	29,8	283	70,2
Itzulpenak	178		79	44,4	99	55,6
Guztira	581		198	34,1	382	65,7

Iturria: txostenaren egileak prestatua, ISBNren erregistrotik abiatuta.

Hautatutako euskal argialetxeen artean, eta egile bakarreko lanen kasuan, emakume gehiago daude euskaraz idatzitako literatura-lanetan gaztelaniaz idatzitakoetan baino. Gaztelaniaz idatzitako lanen egileen artean, % 27,1 bakarrik dira emakumeak; euskaraz idatzitako lanen egileen artean, % 42,9.

**14. Taula:** Egile bakarreko lanak, hizkuntzaren eta egilearen sexuaren arabera. 2017

	GUZTIRA		EMAUMEAK		GIZONAK	
	Kop.		Kop.	%	Kop.	%
Gaztelania	284		77	27,1	207	72,9
Euskara	273		117	42,9	156	57,1
Beste batzuk	24		5	20,8	19	79,2
Total	581		198	34,1	382	65,7

Iturria: txostenaren egileak prestatua, ISBNren erregistrotik abiatuta.

Itzulitako lanen artean, 217tan adierazi da egilearen izena. Horien artean, % 36,9 emakumeek itzuliak dira. Argitaratutako lan gehienak helduentzako fikzioa eta haur-ikaskuntzako izenburuak dira (liburu ilustratuak, koloreen ikaskuntza, neurriak, zenbakiak eta abar). Helduei zuzendutako literatura-lanei dagokienez, 55 izenburu daude, eta horietatik % 32,7 emakumeek eginak dira. Haurrei zuzendutako ikaskuntza-liburuei dagokienez, 61 izenburu daude, eta % 18 soilik dira emakumeek itzuliak.

**15. Taula:** Itzulpenak alorraren eta itzultzailearen sexuaren arabera. 2017

	GUZTIRA		EMAKUMEAK		GIZONAK		MISTOA	
	Kop.		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Arteak	4		1	25,0	1	25,0	2	50,0
Biografiak eta eghiazko gertaerak	2		1	50,0	1	50,0	-	0,0
Literatura eta Literatura Ikasketak	11		7	63,6	4	36,4	-	0,0
Fikzioa	55		18	32,7	37	67,3	-	0,0
Humanitateak	12		5	41,7	5	41,7	2	16,7
Gizartea	26		7	26,9	13	50,0	6	23,1
Osasuna eta Garapen Pertsonala	3		2	66,7	1	33,3	-	0,0
Haurrak eta gazteak: ikaskuntza	61		11	18,0	46	75,4	4	6,6
Haurrak eta gazteak: fikzioa	27		15	55,6	12	44,4	-	0,0
Haurrak eta gazteak: didaktika	19		12	63,2	7	36,8	-	0,0
Haurrak eta gazteak: gai pertsonalak	1		1	100,0	0	0,0	-	0,0
Guztizko orokorra	217		80	36,9	127	58,5	10	4,6

Iturria: txostenaren egileak prestatua, ISBNren erregistrotik abiatuta.



**AZTERKETA**

**KUALITATIBOA**

## 1. METODOLOGIA

Sakoneko elkarrizketen helburua da estatistikek datuen bidez erakusten dizkiguten errealitate batzuk ulertzen lagunduko diguten azalpenak eta ñabardurak biltzea eta, era berean, emakumeek eta gizonen argialetxeetan eta liburu-dendetan bizi duten egoerari buruzko pertzepzioak jasotzea.

Sakoneko elkarrizketaren laginketarako, bi estrategia erabili ditugu, bata argialetxeentzat eta bestea liburu-dendentzat. Liburu-denden kasuan, komenentziatzko laginketa bat egin dugu, konplexua baita erakunde horien parte-hartzea lortzea. Argialetxeen laginketari dagokionez, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Urtean 100 ISBN baino gehiago izatea. Hautaketa honetarako, 2018koak hartu ditugu kontuan.
- Askotariko argitalpenak izatea eta literatura lehenestea. Alde batera utzi ditugu alor jakin bateko argitalpen oso espezializatuak.
- Editoreen elkarteetako kide izatea. Jarrera aktibo horrek bi gauza erakusten dizkigu: alde batetik, elkartearen jarduteko era ezagutzen dutela; bestetik, beste argialetxe batzuekiko gertutasuna dutela eta, beraz, beste argialetxe batzuen esperientziei buruzko informazio aberatsagoa dutela. Aukeraturiko bost argialetxeen artean, hiru editorial Euskadiko hiru elkarte nagusietako kide dira: Euskadiko Editoreen Elkarte, Euskadiko Liburu Ganbara eta Euskal Editoreen Elkarte.
- Kultura Sustatzeko zuzendaritzaren dirulaguntzak jasotzea. Irizpide gisa ezarri ez bada ere, kontuan hartu da.

Irizpide horiek aintzat hartuta, sei elkarrizketa egin ditugu, eta, guztira, 9 lagunek parte hartu dute. Elkarrizketak 2019ko martxoaren 1aren eta 16aren bitartean egin ditugu, eta batez besteko iraupena ordu batekoa izan da. Elkarrizketa guztiak argialetxeen egoitzetan edo liburu-dendetan egin ditugu, eta banan-banakoak izan dira, bi salbuespenekin: batetik, saio batean fundazio bereko bi argialetxe elkarrizketatu ditugu; bestetik, kasu batzuetan argialetxe bereko kide batek baino gehiagok hartu du parte, funtzio desberdinak betetzen dituztenak. Elkarrizketen fitxak eta gidoiak eranskinean aurki daitezke.

## 2. ESPERIENTZIA PERTSONALA

Elkarrizketaturiko pertsona guztiak adierazi dute editore-lana edo liburu-saltzailearena ez dela izan bokazio goiztiar baten ondorioa, prestakuntza espezializatu bat jasotzeko estrategia bat ekarri duena. Leku gutxitan eskaintzen da lanbide horietarako prestakuntza edo gradu zehatz bat eta, beraz, ez dago lotura erreal zuzenik egindako ikasketen eta lanbidearen artean.

*“Editore izaten ez da ikasten. Editore-ikasketak, agian, Frantzia zer baita badago, edo Katalunia, baina ez, hemen ez dago gradu ikasketarik. Nik uste dut jardunez ikasten dela” (E2).*

*“Nik ez dut ezagutzen, ez gradurik eta ez bestelakorik, bai, geroz eta gehiago ikusten ditut, bidaltzen dizkiguten curriculumean, argitalgintzarekin lotutako ikasketa, baita unibertsitarioak ere (...) uste dut Bartzelona aldetik behin baino gehiagotan iritsi izan zaizkigula, baita hemengo jendearen curriculumak, han ikasitakoak, baina ez nizuke esango zehazki, ez unibertsitarioak diren eta ez masterrak diren, (...), ez dut ezagutzen inor ikasketa horiek dituenik gure gertuko inguruan behintzat, gehiago ezagutzen ditut prestakuntza zehatzak, pribatuak, zuzenketarako, (...)” (E1).*

*“Nik ezagutzen ditudanak, ez dut inor ezagutzen, horrela, mundo honetan, liburugintza honetan, edizio ikasketa propioak eginda hasi denik, edo Filologia mundutik datoz, edo Kazetaritza mundutik, beste arloa da diseinuaren mundua, argialetxearen jardun desberdinak daude, eta adibidez diseinu mundua, bada espezializatuagoa, baina bestela ediziogintzan, edo argialetxearen kudeaketan gabiltzanok, etortzen gara, bestelako esparru batzuetatik, hurbil gelditu daitezkeenetatik, eta gero egin dugu ofizioa, pixkanaka egiten ari gara” (E8).*

*“Edizioaren parte literarioan filologo ugari dabil, (...) baina ez Filologiak horretarako prestatzen duelako” (E1).*

*“Ez, nik esango nuke orain behintzat, hemen Euskal Herrian salto handiena egon zen 70. bukaeran 80. hasieran, non, literatur kezka zeuzkatenean beren kezka bihurtu zituzten argialetxe” (E2). “Nik ezagutzen ditudan kasu gehienetan, literatur zale izatetik editore izatera pasatu gera, nik behintzat bai eta ni bezala beste asko ere bai, nik ezagutzen ditudan gehienak esango nuke, literatur zaletasunetik ediziora, hori da bide arruntena” (E1).*

Ideia bera islatzen da liburu-dendetako lanetan edo liburu-denden kudeaketan: "(...) Por continuación de lo que hizo mi madre, y lo que he vivido desde pequeña" (E6), "y yo también igual, por tradición familiar" (E7). "Hay otras dos librerías que yo creo que es el mismo caso, es decir, por continuidad familiar (...) en las demás cogen gente joven, otra gente, contratan, no es tan familiar" (E7).<sup>2</sup>

"El nivel de estudios o tipo de estudio no se mira mucho, que tenga iniciativa, y ganas de aprender, para trabajar en una librería no se estudia, no hay unos estudios específicos" (E7). "Bueno, conocimientos sobre el mundo de los libros, cultura, escritores..." (E6). "Gente que le guste leer" (E7).<sup>3</sup>

"Gustoko izan behar dezu, gustatu egin behar zaizu irakurtzea eta liburuak, udaran hasten zara" (E10), "asko daude irakasleak (...) Filosofía ikasi dutenak, Antropología etabar" (E10).

Elkarrizketatuek uste dute gaur egun editore-lanetan edo liburu-saltzaile lanetan dabilzan pertsonen prestakuntza askotarikoa dela eta editorearen lanbidea jardunean eskuratzen dela. "Erabat autodidaktak gara, erabat. Beraz, daukagu, gruyere gaztaren edo emmental gaztaren antzeko formazioa, zuloz betetako" (E1). "Kasi praktikan ikasten ari naiz" (E8).

Praktikaren bidezko prestakuntza-prozesu horretan, enpresaren kudeaketarekin lotutako alderdia gaitza gertatu da kasu batzuetan. Horregatik, alderdi horretan trebatzeko beharra ikusten dute.

"Edizioaren alderdi enpresarialean murgiltzea. Horrek prestakuntza berezia eskatzen baitu oso berezkoa, eta nik ezagutzen ditudan editore gehienek kasuan, hori ikasi dugu, (...), alegia, hanka sartzen eta sufrimendu askorekin ikasitakoa, ze hor, arriskuak daude eta ez da jolasa. (...) hori izan da alde handiarekin oztoporik handiena" (E1).

"Ondo egin dudana zerbait aipatzekotan, hasieratik, enpresa estruktura eman nion, eta hori nik egin nuen nahiz gerente ez izan, orduan. Nik esaten det, ze orduan ni bakarrik nintzelako administrazio lanetan, asesore batzuen laguntzakin, noski." (E3) "Nik ikusten nuen, nik alboa neuzkan guztiak literatura eta politika asko interesatzen zitzaizkion eta asko zekiten, eta hortik asko

jaso nuen, bale, baino ikusten nuen desastre batzuk zirela, eta esaten nuen, hau zer da? Hau organizatu egin behar da" (E3).

### 3. EMAKUMEAK ARGIALETXEEN ETA LIBURU-DENDEN ZUZENDARITZAN

Argialetxeen goi-egituretan bi funtzio bereizten dira: argialetxearen kudeaketa enpresariala eta kudeaketa editoriala bera, hau da, editorearen funtzioa.

"Anglosaxoiek bereizi egiten dituzte bi ofizioak; Editor eta Publisher, gu hemen gehienok bietan izan gara, ez guztiok, egongo da argialetxearen bat, adibidez XXXX kasua, nik uste dut hor ondo bereizita dauzkatela bi lanak, eh, (...) , hortik behera argialetxe txikitetan nik esango nuke gehienak gerla bietatik betebeharrekoak ditugunak" (E1).

"Ez naiz sekula aritu editore lanak egiten zuzenean, ulertuta, editore lanak egitea dala testuen gaineko, ba ia edizioa, gehiago izan da pixka bat, eta hasieratik ere horrela planteatu zidaten, koordinatzaile, edo zuzendari edo arduradun (...) ez zuzenean editore lana egitera, bai argialetxearen koordinazio orokorra eramatera" (E8). "Nire lana ez zen editore lanak egitea, gehiago zen kudeaketa egitea, eta kudeaketa egitea liburugintzan" (E8).

"Zer ulertzen du pertsona bakoitzak editorea zein da?, ze lehen ni hasi nintzenean lan honetan, nik orduan nituen 20 urte, orduan editorea zen ba, pertsona individual bat zen normalean (...) bere dirua jartzen zuen eta berak egiten zuen edizio lana, ateratzen zuen nahi zituen liburak etabar. Orduan hortik editore hitza pertsona batean pertsonalizatuta dago, baina enpresa bihurtzarekin batera uler daiteke editorea dela enpresa horren barruan, argialetxe horren barruan, erabakitzen duena, ez beti, ze sekula ez da bakarrik izaten, ze liburua da txarra edo ona edo publikagarria, (...) hori izango litzake guretzako editorea. Beste aldetik (...) dago enpresa ikuspegia. Batzuetan elkarrekin daude." (E3).

<sup>2</sup> "(...) Nire amak egin zuenarekin jarraitzearen, eta txikitatik bizi izan dudanarekin" (E6). "Eta nik ere berdin, familiaren tradizioagatik" (E7). "Beste bi liburu-dendatan ere gauza bera gertatzen da, nire ustez, hau da, familiaren lanarekin jarraitzearen (...) Gainerakoetan jende gaztea hartzen dute, beste era bateko jendea, kontratatu egiten dituzte, ez da hain familiarra" (E7).

<sup>3</sup> "Ikasketak mailari edo ikasketak motari ez zaio askorik begiratzen. Ekintzailea izan dadila, eta ikasketak gogoia. Liburu-denda batean lan egiteko ez da ezer ikasi behar, ez daude ikasketak zehatz batzuk" (E7). "Tira, liburu munduari buruzko ezagutza, kultura, idazleak" (E6). "Irakurtzea maite duen jendea" (E7).

*“Prentsara joaten garenean denori jartzen digute editore, nahiz eta gerentea izan(…)” (E5).*

*“Kontratuak iristen zaizkidanean, nik ez du sinatzen editore bezela, aldatu egiten dut, XXXX argitaletxeko arduradun bezala” (E3).*

Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxe gehienetan, funtzio horiek guztiak pertsona bakar batek egiten ditu, argitaletxe gutxitan baitaude 10 langile edo gehiago. Kudeatzailearen eta editorearen lana bereizten dituzten argitaletxeetan, ezin da esan joera bat dagoenik emakumeek eta gizonen funtzio batean eta bestean duten presentziari buruz, nahiz eta, oraindik ere, gizonak ugariagoak izan, lehen aztertutako datuek islatzen duten bezala. Bi funtzioak pertsona beraren gain dauden kasuetan, gizonen proportzioa handiagoa da. *“Alde enpresariala, edizio-lanaz arduratzeaz gain, enpresaz ere arduratu behar da. Editorial handi batean, non enpresa gauza munstro bat den eta editoreak bere lana egiten duen bakarrik, ez da hala gertatzen. Baina gurean, editoreak gerenteak ere badira, eta, askotan, errekadista ere bai. Horrek prozesu guztiak ezagutuarazten dizu (...)” (E2)*

Elkarrizketaturiko pertsona batzuk nazioarteko azoketan izanak dira, eta emakumeek eta gizonen funtzio desberdinetan betetzen dituzten tokiei buruzko beren ikuspegia eman digute. Onartzen dute goi-egituretan, argitaletxearen zuzendaritzan, enpresarenean, gizon gehiago daudela, baina erdiko mailetan, zuzendaritza literarioan, arlo komertzialean eta abarretan, emakumeak dira nagusi.

*“Nazioarteko mailan, emakumezkoen presentzia handia da agenteetan, (...), asko dira, (...)bakan batzuk dira gizonetzkoak (...), esango nuke, haur eta gazte literaturaren alorrean nagusikoa dela emakumeen editoretik”(E1).*

*“Hor daude bi mundu, editoreenak, eta editoreetan, gertatzen ari da seguru asko hemen ere gertatzen ari dena, editoreetan eta zuzendaritzetan gizonetzkoak dira nagusi, baina editore emakumezko batzuk ere badira eta ikusten dira. Gu joaten garenean batez ere komertzialekin egoten gara eta arlo komertzialean saltzen ari diren asko emakumeak dira baina bere arduran daudenak gizonetzkoak dira. Agenteak edo argitaletxeetako komertziala emakumezkoak dira, eta enpresa buru gizonetzkoak, kuriosoa da komertzialak gehienak emakumezkoak dira, oso deigarria da” (E8).*

Elkarrizketatu gehienek arabera, argitaletxeen zuzendaritzan osaera aldatzen ari da, genero-ikuspegia aintzat hartuta. Euskadiko argitaletxeak sortu zirenean, 1970eko hamarkadaren amaieran eta 1980koaren hasieran, ia ez zen emakumerik ageri haien zuzendaritzetan. Argitaletxe guztiak kontuan hartuz gero, emakume bat edo bi izan zirela esan daiteke. Mende-aldaketarekin batera, 1990eko hamarkadaren amaieratik eta 2000koaren hasieratik aurrera, aldaketa bat gertatzen ari da, eta aldaketa hori ez dagokio soilik generoari, belaunaldiari ere badagokio.

*“Begiratzen badiegu euskarazko argitaletxeen kasuari (...), nik uste dut prozesu hori duela hamar bat urtetik hona datorrela” (E1).*

Galdetzean zergatik ez zen abiatu aldaketa hori lehenago, elkarrizketatuek hiru elementu aipatzen dituzte: 1. Emakumeen ikusezintasun orokorra, 2. Erakundeen iragazkortasuna, eta 3. Argitaletxeen zuzendaritzetan zegoen giroa. Emakumeen ikusezintasunari dagokionez, elkarrizketatuek diote argitaletxeak sortu ziren unean emakumeek ez zutela presentziarik eremu publikoan eta, beraz, oso gutxik hartu zutela parte erakunde horien hasierako urratsetan.

*“Emakume batentzako ez da bat ere erraza izan, ez, ez da bat ere erraza izan, eta hori esaten dizut horrela, ze emakumea garai hartan ez ginen, eramos invisibles, (...) egun beste generazio bat dator, emakumeak beste adin bat dute, baina garai hartan, emakumeak ez ginen ikusten, eta kasi kasi ginen etxeko andreak bezala” (E3).*

*“Gehienak ziran, lotzen zituen, politikak, kultura zaletasunak, eta izango ziran 50 bat, diru pixkat bota zutenak, bakoitzak donatibo bezala, (...) zen sociedad anónima bat, casi casi sin animo de lucro dibidendoak ez zirelako banatzen, etabar, (...) gero anpliazio bat egin zen, egun, badago Kontseilu Administrazio bat baina dira, fundadoreak izan direnak, gaude momento batean, ba, haiek adina bat dutena eta aldaketa bat izango dela bai kontseiluan, eta bai gu, ze ikusten gaituzu” (E3).*

*“Aukeraketa egiten zuena ere, bere ingurua eta testuingurua erabat gizonetzkoa baldin bada, ulertzen dut, eta ez baldin badaukazu klabija oso presente, ba, bueno, pues horrek pisatuko zuen, eta orduan, ba, errezago lerrokatzen zen gizonetzkoen alde, eta kontaktoak eta erreferentziak eta harremanak eta gizonak gizonen munduan, ba horrek ere emakumea ikustezina egiten zuen. Beno, hori da problema estruktural bat daukaguna (...) Ez badago politika*

zehatz bat, ba inertziak eramaten zaitu egoera horretara, aldaketa ez ematera (...) Oraindik ere leku askotan gertatzen den inertzia bat da” (E8).

“Gauzak gizonen artean egiteko tendentziak. Bertan gaudenok, daukagun ingurua” (E2).

Argialetxeen iragazkortasunari dagokionez, elkarriketatuek elementu giltzarri bat aipatzen dute: argialetxeak laguntalde batzuek sortu zituzten, militanteak, helburu bat partekatzen zuten pertsonak, eta helburu hura proiektuaren helburu bilakatzen zen hasieratik. Urteek aurrera egin ahala, izaera horrek bere horretan jarraitu du, eta argialetxe batzuetan bakarrik handitu da langileen kopurua modu nabarmen eta jarraituan; kasu horietan, jardute-eremu eta sail espezializatuak sortu dituzte, eta ugaritu egin dituzte kudeaketarekin edo zuzendaritzarekin lotutako lanpostuak; nolahi ere, datu kuantitatiboek erakusten duten gisan, oso argialetxe gutxi dute langile-kopuru handia. Argialetxeak nabarmenki hazi ez diren kasuetan, erakundearen sortzaileek zuzendaritzetan jarraitzen dute, hau da, gizonak, eta belaunaldi-aldaketa batek soilik ekar dezake aldaketaren bat generoaren ikuspegitik. Edozelan ere, elkarriketatu gehienek uste dute aldaketa horrek emakume gehiago ekarriko dituela zuzendaritzetara.

“Bateratsu denak, XXXXX, garai batean buru eta arima zen apaiza bat, XXXX, urtetan baina gero neska bat agertzen hasi zen, eta bera egoten da, egia esan ez dakit zein den bere papera zehazki, hori ez baita galdetzen, baina” (E1). “Nik uste dut erreleboarekin batera, erreleboa horrela etorriko dela, dudarik gabe, batere zalantzarik gabe, natural-natural, eta modu honetan” (E1).

“Hasieran ere, literatur mundu honetan ibiltzen ziren emakumeak gutxi ziren, baina hori aldatu da, eta horrek baldintzatzen du dena” (E4). “Editore mailetara, hauek jubilatzen direnean, lehengo garaiko horiek, emakumeak etorriko dira, está claro, bai” (E4). “Eta aldaketa emanda dago, asuntua da hauek oraindik ez direla jubilatuta” (E5).

“Ez, nik esango nuke orain behintzat, hemen Euskal Herrian salto handiena egon zen 70 bukaeran 80 hasieran, non, literatur kezka zeuzkatenek beren kezkak bihurtu zituztena argialetxe. Premia zuten, bere liburuak argitaratu nahi zituzten, ez zuten bere burua ikusten argialetxe klasikoetan eta haiek egin zituzten argialetxeak ia ia zerotik asmatu” (E2).

“Lehen horrela zen, literatur zaleak elkartzen ziren eta erabakitzen zuten, gainera berain artean elkartzen ziren, rollo ona zutenean, konexio bat, afinidade batzuk eta horrela eta literatura mota bat eta horiek dira (...) ideologia ere egon zitekeen, kulturaren alde eta beno, (...) mundu ikuspegi batekin” (E4).

“Dagoeneko bi mundu daude, gure garaiako mundua eta oraingo mundua (...) egun, nik uste dut badagoela bere formazio berezia, kursiloak ematen dira, nola montatu, en fin, baina nik uste dut gure garaiaren zela politika munduarekin oso lotua, euskalherrian gehien bat, hemengo argialetxe gehienak (...) jatorria, kultura mundua, hezkuntza mundua, en fin, beste garai batzuk ziran. Ez bakarrik euskaraz, gazteleraz ere, denak progreaokoak, mundua aldatzeko gogoarekin” (E5).

“Taldea kohesiona, taldean funtzionatzea, bide hori ez da erraza, antolaketa horretan hutsuenak zeudelako, bale, talde bat gara baina hori xehetzen dugunean, talde bezala funtzionaltzeko zailtasunak daude (...) teoriar errazagoa da 3 pertsonako taldean dimentsioa duen batean baino eta gainera garai ezberdinetan sartutako jendea. Batzuk, garai batean sartu eta era batera funtzionatzen zuten, eta horiekin batera, albora beste jende bat dago, daude, gaude, eta guztien artean egin behar zen, ordun engranaje hori aurkitzean, teoriar denok ados, baina praktikara eramatea kostatzen da eta ziur ere kostatuko da” (E8).

“Batetik dago gizonetako pausu bat atzera egitea, ze, lekurik ez badaukazu, ezpaziorik ez badago, ez dira bi sartzen; edo pausu bat egiten dute atzera eta espazioa uzten dute, edo bestela... (...) Lekua behar duzu egoteko, eta, ez badago lekurik, horrela hasi behar dezu [besoak mugitzen], baina emakumeak ez gara horretan hasten” (E8).

“Oso txikia denean, guk editore bat bakarrik izan dugu urte askotan. Aldaketa egon denean, nik uste argi zegoela emakumea izan behar zuela, nahiz eta bazegoen hautagai bat, baina bazuen problema hori. Joe, es que orain aldatzen ez badugu. Zailtasun hori badago txikian, leku bakarra dagoenean; ez da gauza bera gertatzen 35 pertsona daudenean. Hori badago. Baita ere badaude onartutako edo onartu gabeko erresistentziak ere” (E2).

“Oraindik badago, taldean esan dezagun (...) Sortzaileak oraindik, benetan XXXXXX sortu zutenetik batzuk oraindik, jada pixkanaka jubilatzen ari dira, eta bertan ez egonda ere egunerakotasunean kontaktuan jarraitzen dute, eta ondoren hasi ginen gu” (E8).

*“Orain askoz emakume gehiago daude editore-lanetan” (E8).*

*“Orokorrean, argitaletxean gehiago gara emakumezkoak, bai kopuruz eta bai arduradunen artean ere. Gaur egungo antolaketan, zuzendaritzan, beno, ez dago jende asko ere, ez da kopuru ikaragarria, eta 2 neska, 4 mutil eta presidentea gaude, eta patronatuan ere gizonezkoak dira gehienak, emakumezkoak 2 gara” (E8).*

*“Nik aukeratu ditut (...) pues iruditu zaizkidalako egokienak, lanpostu horretarako mometu horretan, eta igual ez dudalako aplikatu bestela aplikatuko nukeena, hau da, emakumezkoa da eta konszienteki edo inkonszienteki bigarren mailakoa dela, ez dut ere egin emakume bila noa baina ez dut ere kontrara jokatu, eta bueno, pues aurkeztu zaizkidan aukeren artean, lanpostu bakoitzerako aurkeztu zaizkidan aukeran artean, pues hautatu ditut pertsona egokienak” (E8).*

Argitaletxeetako zuzendaritzetako lan-giroan beste elementu bat ere badago, oztopo bat izan ahal izan dena: pertsonen arteko harremana, aintzatespena eta abar.

*“Askotan egiten dira normala izango balitz bezala baina normalak ez direnak, eta nik hor, ba urte asko daramat, eta frente egin behar izan det, ez bakarrik hemen barruan, inkluso banketxe batera joaten nintzenean “uy qué guapa vienes” eta nik pentsatzen dut, XXXX datorrenean ziur ez diola hori esaten (...), ondo erortzen ginen, baina, nik hari esan nahi nion, nik ez nuela nahi, ni horrera nijoala a negociar, (...)” (E3).*

*“Generoarena, bai, modu ageriakoan edo sutilagoan, (...) nik somatzen dut leku batzuetan, gizonezko batek baino ibilbide gehiago egin behar izan dezula, nire hitza aintzat hartu izan dadin, forma zabarragoekin edo ez hain zabarrekin fondoan hori ere badago. (...) Nire kasuan suertatu zen emakumea eta gazteagoa, (...) hasieran askoz gehiago kostatzen zen zure hitza entzunaraztea izatea gizonezkoarena baino, dudarik ez daukat eta nik banuen konponente bat errazten zuena, bila etortzea, baina kosta egin zitzaidan (...) etxe barruan eta sektorean, inguruan tokatzen zaizkizun beste harremanetan, oso garbi ikusten duzu, zure ahotsa ez dela berdin entzuten, hori bizi duzu, behin baino gehiagotan” (E8).*

*“Nik ikusten detena da, gure argitaletxe honetan, gure artean, harremanak nola dauden, gainera ausarta izango naiz, eta uste det kriston aldaketa eman dela urteetan zehar hizkuntza aldetik, gure arteko hizkuntza aldetik, lehengo txisteak hemen ez da aipatzen, harremanak, kafea hartzera” (E3).*

*“Esango nuke, gure kasuan, aldaketa hori ez dela eman orain dela gutxi arte. Gure argitaletxera binkulatutako bat edo bi egon dira, horrela, bat edo bi, zirenak, publikatu duten emakumeak egon dira, ia hasieratik bat edo beste baina ez duten bestelako harremana argitaletxearekin. Egon dira bat edo bi baina hain zuzen ere momentu batean egon dira urrun ba ez zirelako sentitzen talde horretakoa, ez zegoen. Gu maite gaituen jedeak esaten zuen gure argitaletxeak soziedade gastronomiko bat ematen zuela, eta hala zan. Kuadrila bat, denak gizonezkoak” (E2).*

*“XXXXXX hasi zenean, hasieran, emakume bakarra ni nintzen, XXXXXen laguntzarekin, (...) sozioen artean, zenbat emakume daude?, gero bai, baina kontuz, kantidadeak ez du inporta gehiegi, da kalidadea, egon daiteke enpresa batean ez dakit zenbat emakume, y que no, ez dutela ezer erabakitzen” (E3) “Aldaketa eman da orain dela gutxi, nik esango nuke, (...) baina, literaturan erabakitzen, erabakitzen, ez dakit badagoen inor, beno, bai, badaude, 2000. urtetik aurrera,(...) baina nik hitz egiten dut haiekin eta erabakiak zeinek hartzen ditu?” (E3).*

*“Inportantea da, benetan ardura ematea” (E3).*

*“Gero, guk, emakumeok funtzionatzeko, harreman estilo berri bat eraiki nahi dugula, hau da, ez da kontua patroji jakin batean gizonezkoak kentzea eta emakumezkoak ezartzea modu horretan funtzionatzeko, edo era hortako harremanak, edo komunikazio eta botere harremanak reproduzitzeko, ez, nik uste dut, beste harreman estilo bat, eta beste kultura batetik abiatu beharko genukeela, beste era bat, eta hor ere sentituko ginatete komodo, gu sentitzea gauden lekua eroso eta orain arte egon garen leku horretan ez gara sentitu eroso, eta orduan ez dugu hor egon nahi” (E8). “Elkartzen badituzu, giroa, gehi zaintza ardurak, gehi ez dakit zer ba, batzuetan esaten dezu, anda ya” (E8).*

Laneko egunerokotasunari dagokionez, batzuetan gertatzen da inertziez eta zaletasunek eragiten dutela sexu bereko pertsonen osatutako harreman-talde txikiagoak sortzea. Kafe-orduan, adibidez: *“Egia da, gauzak ez dira horrela aldatuko, batzuei ezin diet obligatu, baina errezago egiten zaie joatea, ba XXXXXXXkin edo XXXXXXXkin, beste batzuekin baino” (E3), “nahi gabe, inertzia batean” (E4).* Eta horrek, denborarekin, harreman edo adiskidetasun berezi bat ekartzen du.

Elkarrizketatuek onartzen dute liburu-dendetan argitaletxeetan baino emakume gehiago ari direla lanean. Nolanahi ere, liburu-dendetan gertatu den aldaketa ez da izan hain deigarria, askotan emakumeek liburu-dendaren

sorreran ere parte hartu zutelako. *“Hemengo liburu-dendarik garrantzitsuenen ibilbideari begiratzan badiozu, esango nuke beti egon direla emakumeak. XXXXX, esate batera, liburu zaharren erreferentziatzko denda zena, beti bi emakumek gobernatu zuten; XXXXX ere emakumeek eramaten zuten, XXXXX gizon eta emakume banak; XXXXX(e)n ere emakumeak zeuden” (E7). “Lanean gehienak emakumeak dira, eta curriculuma uzten dutenen % 80 ere emakumeak dira” (E10).*

#### 4. NEURRIAK, GENERO-IKUSPEGIA AINTZAT HARTUTA

Elkarrizketatu batzuek diote ez dela arazotzat jo emakumeak egotea edo ez egotea argialetxeen zuzendaritzetan edo edizio-planetan, sortzaile gisa. *“Ez da egin, ez nik ezagutzen dudanen artean gogoeta gai agerikoa, publikoa behintzat, (...), inork planteatu izan balu, komeniko litzake alde horretatik, seguru nago zerbait egingo zela. (...) izan da sektore barrutik ez dut somatu presiorik horretarako, bestela egingo zen zerbait (...) sektorea horretan oso sensibla da” (E1).*

Elkarrizketetan behin eta berriro aipatzen da sektore honek berdintasunarekiko duen sentzibilitatea, nahiz eta hausnarketa horiek guztiek azken hamarkadari egiten dioten erreferentzia, nagusiki. *“Kezka hau gero, berandu, 2000. urte arte ez da planteatzen hasten, muga bat jartzeagatik, 2000. urtearen inguruan hasten da planteatzen, ez bakarrik. Esango nuke 2000. pasata hasten da, kezka emakume idazleak. Baina oraindik urte batzuk pasa beharko dira ez dela bakarrik idazleak izatea, baizik eta emakumeen argialetxeen estrukturan, erabaki gunetan partehartzea, eta kezka hori, ez da planteatzen 2005. arte gutxienez kezka hori. 2005. pasatuta” (E2).*

Beste kasu batzuetan, ostera, beren ibilbidea aipatzen dute, erakusteko beren ildo editorialean beti izan dutela genero-ikuspegiarekiko sentzibilitatea txertatuta. *“Argialetxea baten barruan gure planteamentua, islatzen da, erreplejatzen da, gure argialetxearen, zer argitaratzen degun, ez da rollo pertsonal bat zer pentsatzen degun eta zer ez, baizik eta hori ikusten dela argialetxe bakoitzak zer argitaratzen duen” (E5).*

Nahiz eta argialetxeek ez dituzten genero-ikuspegiarekin lotutako neurritzat jotzen haien erakundeetan martxan jarritako ekimenetako batzuk, jarduketa batzuek emakumeen

presentzia bultzatu dute argialetxeen erabakiguneetan; beste batzuk, berriz, lagungarriak izan dira sortzaileen artean emakume gehiago egoteko; eta, beste batzuetan, argitaratutako materialetan genero-ikuspegia txertatzea sustatu dute. Xehetasunetan sartu gabe ere, hauek dira elkarrizketetan atera diren ekintzetako batzuk:

- 1 Edizio-planean emakume idazleek duten presentziari buruz hausnartzea, eta, presentzia hori urria den kasuetan, liburu bat idazteko enkargua egitea emakume idazle bati. *“Urteko argitalpen-planaren erreposoa egin, eta aiba la leche, emakume gutxi, eta inoiz egin izan dugu emakumeen bila joan” (E1).*
- 2 Osaera parekidea duen Batzorde Editoriala sortzea. *“Guk orain formaldu egin dugu talde hori. Badaude inguruan idazleak, badaukat ikasle bat oso ondo idazten duena eta liburu bat, edo deskubritu det ez dakit zer, hori badago oraindik. Baina osatu dugu kontseilu editorial bat, editoreak osatuta eta parekidea izango dela esan zuten. Editorearekin dira 5 emakume eta 4 gizona. Nahita bilatu zen. Horrek aldaketa suposatu du, zehazki bila joan ginen eta orain printzipioz liburu guztiak hortik pasako dira” (E2).*
- 3 Gai feministak lantzen dituen berriazko bilduma bat sortzea. *“Orain dela 3 urte martxan jarri genuen XXXXX bilduma eta, gero, berriaz, ez dugu landu” (E8).*
- 4 Ibilbide luzea hezkidetzaren alorreko argialetxearen, hezkuntzaren alorrean aldaketak sustatzeko ekarpenak 12 urte baino gehiagotan. *“Gure gizarteko liburuak hor daude, duela, 10, 12 urteko liburuak, edo 20, non emakumeak azaltzen dira izenarekin errebeindikatuz emakumearen papera historian, hor daude, gure liburuetan. (...) orain dela 10 urte ere egin da sexu hezkuntzarako, genero hezkuntza, lau liburu ditugu, hor daude (...) baina ez dira saltzen, ze eskola ausartzen da hori ematen, hori irakasten, ze gurasok onartzen duten. (...) errazagoa da hitzaldi bat ematea, baina testu liburuekin, lantzea, lantzea, hori ez, gure hemeroteka hor dago” (E5).*
- 5 Berdintasun Plan bat egiteko prozesuan. *“Prozesua martxan dago, berdintasun plan bat, abiatzekoa (...) aurtengo urtean burutuko da, eta aurretik formazio saio batzuk egin izan ditugu, eta azken urteetan gehiago” (E8).*



## 5. ARGIALETXEAREN ETA SORTZAILEAREN ARTEKO HARREMANA

Lan baten edizio-prozesua aztertzeko, urrats hauek hartu ditugu kontuan: 1. Jatorrizko lanaren aurkezpena/eskaera, 2. Jatorrizko lanaren balorazioa 3. Editore eta sortzailearen arteko zuzenketa-moldatzen prozesuaren harreman estua eta 4. Obraren komunikazioa eta sustapena. Lehen bi urratsetan, editoreak eta bere 'inguruak' funtsezko papera jokatzeko dute lan bati eta idazle bati atea irekitzeko orduan. 'Inguru' hori argialetxearekin lan egin ohi duten idazleek osatzen dute, baina baita konfiantzazko pertsonak ere. Argialetxe handi batzuek inguru propio bat izaten dute argialetxearen barruan, batzuetan formalizatua egoten dena. Argialetxe txikietan, ostera, 'inguru' hori talde informala izaten da. Horrek eragina du argialetxearen ildo editorialean eta ildo hori eskaera berrietara egokitzeko gaitasunean, halakorik balego.

Argialetxeentzat, lan bat eskuratzeko biderik ohikoena da sortzaileak lan original bat aurkeztea. Gutxiagotan gertatzen da argialetxeak berak horrelako lan bat eskatzea.

*"Bi bide daude normalean argialetxeak originalak eskuratzeko, batetik, berez datorrena, alegia, egunero jasotzen ditugu proposamenak (...) Bestetik lana zailagoa dena, danok saiatzen garena zeuk bultzatzea lana, hori gehiago egiten da haur eta gazte literaturaren alorrean, (...) oso zaila baita helduentzat idazten duen bateri esatea, liburu bat egin beharko zenuke, eta honi buruz, hori da harreman pertsonal bat" (E1).*

*"Normalean etorri egiten dira, enkargatu ere egiten ditugu, bietatik, gauza konkretu batzuetatik eskatu egiten ditugu" (E3).*

Tradizionalki, idazlearen eta argialetxearen arteko harremana iraunkorra eta konpromisozkoa edo leialtasunezkoa izan da. Hau da, denborak aurea egin ahala, argialetxe bakoitzak idazle-talde bat lortu du, eta editorialek espero dute idazle horiek berekin argitaratzea; harreman bat dute haiekin. Idazle horien lanek azkarrago egiten dute argialetxerako bidea. Baina idazle-talde nolabait itxiak sortzea oztopo izan da idazle berriak talde horietan sartzeko, nahiz eta argialetxeek lan guztiak hartzen dituzten kontuan eta kalitatea aipatzen duten beti funtsezko irizpidetzat. Lehen, argialetxe baten atea zeharkatzeko biderik ohikoena zen jada argialetxe hartako idazle-taldean zegoen idazle baten bitartez sartzea. Kasu batzuetan, oso zaila zen argialetxeak lehen obra bat

onartzea, baldin eta ez bazuen argialetxearen 'inguru'aren bermerik.

*"Tradizionalki izan da leialtasun bat idazlea argialetxearekin (...) etxeko idazleak, baina hori aldatzen ari da, galdu da hori" (E4). "Lehen liburua eskatzea beste argialetxeko bati, ba hanka sartzea bezala ikusten zen, baina gaur egun, ba liburua eskatzea, beste generazio bat da" (E3).*

*"Normalean egilea bera etortzen da esanez, honi, honi, eta honi eman diot eta, segun eta zenek, zenek eta zenek ba hori, gero noski, argialetxean, XXXXXX esaten du eta irakurtzen du jende gehiagok (...) ez dago departameto bat horretarako baina bai sare bat" (E3). "Izenik ez daukatenean, ba beste gauza bat da, baina izena daukatenean etortzen dira esanez, hauek eta hauek eta hauek esan didate ona dela" (E3).*

*"Bakoitzak ditu bere zirkuloak, bakoitzak badu harreman sarea, eta beno" (E8). "Gutxi gara, denok ezagutzen dugu elkar, denak dituzte hurbilagoak eta ez hain hurbilakoak" (...) "funtzionatzen du asko gertutasun horrek, eta egina dagoen sare horretan berri batek sartu behar badu, ba ez dauka erraza, denborarekin, egiten duzu, harremana, baina egina dagoen sare batean sartzeko, eskaini behar duzu zerbait ere" (E8).*

Lanak enkargatzea ez da izan eta ez da ohikoa, baina bai idazleak akuilatzea; batez ere, argialetxearen gertuko idazleekin egiten zen. Kasu horretan ere, funtsezkoa zen taldeko kide izatea eta, batzuetan, editorearekin konfiantza eta harreman pertsonal bat izatea. Horrela, bada, editorearen inguruak eragin handia du edizio-planean.

*"Ez du eskatzen baina idazleari atera egiten dio. Joaten da harengana, kafe bat hartzen du, bazkaltzen du harekin, paseo bat, eta galdetzen dio, zertan ari zara? benga ba pasa iezadazu. Es que... ez daukat ezer...nahikoa... zu lasai, pasaidazu hemendikan tiraka pues agian liburu bat dator. Zain egonez gero berak bidaliko ez duena. Zertan ari zara? gai honekin zuk ez zenuke zerbait egingo? (...) Ezezagun batengana ez goaz, aurretik gurekin lan egin dutenak. laz atera genuen liburu bat (...) urte pilo bat publikatu gabe, bere garaian liburu potenteak egin zituena, oharkabean pasa zirenak. Eta bueno, gure orduko editoreak galdetu zion, Joe, zer?, ez al duzu idazten?, Beno baditut testu baina igual ez dira, bidali zerbait eta aurten ere (.....) eta berdin. ez duzu idazten edo.. badet zerbait baina ez dakit, geratu da berekin editora. Ez da eskatzea baina bai ateratzea, bultzatzea, interesatzea, zertan ari den. Hori fundamental da, ze batzuk oso argi dute, beste batzuk egiten*

*digute bidali baina esango nuke bidaltzen dizkiguten originaletatik liburu, gurean liburu publikatu izatera iristen direnak gutxienekoak dira. Gehienak dira ya ezagutzen ditugunak, proiektua dutena” (E2).*

*“Azkenean da estimulazioa, gure garaian, idazlea, idazten dagoena, pixkat hitzegin, lagundu, liburu bat igual, ba begira ez, titulu bat eman, antzeko mundutan zabiltzate, interesgarrai da(...) Nolabait ere lagundu, zure aldetik, ondo etorriko litzaizuke irakurtzea liburu hau.” (E4).*

*“Asko etorri, eta bueno, baina baita eskatu ere, eta bueno, esango nuke, gero eta gehiago eskatzen dela, iradoki behintzat, (...) xaxatu, iradoki, argialetxean pentsatu zer nolako bilduma nahi genuke, animatu, lehen ere egiten zen baina orain presentegago dago. Publikoa aldatzen ari da, gaiak aldatzen ari dira eta etortzen diren proposamenek ez dute hasebetetzen, irakurleek edo eskari horrek eskatzen duena” (E8). “Azkenean denok ari gara autore berdintsuekin bueltan eta esan nahi dut, inork ez dauka aukerarik esateko, jarri zaitez honetan eta ekarri urte beteren barruan, ez dakit zer” (E8).*

Inguru horretan parte ez hartzea oztupo izan da, beharbada, emakume idazle berriak sartzeko. Kasu batzuetan, emakume idazle batzuek beren lanarekiko erakutsi duten jarrera kritikoa ere oztupo izan da. Beste argialetxe batzuetan uste dute sortzaileek beren lanak aurkezterakoan duten jarrerak ez duela zerikusirik genero-auziekin.

*“Bai, zailago du guregana irisiteko. Ze zuzenean botatzen badu, lehenengo atrebitu behar du. Hori zaila da. Normalean iritsi beharko luke gure inguruko norbaiten bitartez, baina gure inguru oso maskulinoa da. Baina gehienak. Hori ziurrenik bada zailtasun bat.” (E2).*

*“Emakumeari gehiago kostatzen zaio aurre pauso bat egitea. Asko atrebitzen direnak salto egiten dute, batzuetan lotsagabatzat jotzen dute, herrian bezala. Askotan jendeak ez dio kaso egiten gauza horiei baina, nik ez dakit zergatik pentsatzen deten, egon behar duela emakume asko idazten duena, eta ez dela ausartzen, ateratzen. Bekak eta hori badaude idazten hasteko baina niretzako neurriak hezkuntza aldetik joan beharko luke” (E3). “Emakume egile batzuk etorri izan zaizkigu eta komentatu dute, eske lotsa ematen zidan ekartzea, Lotsa?, hori hezkuntza kontua da (...) emakume batzuk etortzen direnean esanez, idatzita daukat baina lotsa ematen zidan...” (E3). Nik uste det emakumeak berdintasuna lortu arte ez dagoela berdintasuna literaturan” (E3).*

*“Eta gero egile berriak etortzen direnean, berdin dela emakume bat izan edo gizon bat izan. Gero egile batzuekin harreman pertsonal gehiago izango duzu, beste batzuekin gutxigo baina berdin dela, emakumezko edo gizonzko” (E5).*

Nolanahi ere, hori nabarmen aldatu da; emakumezko eta gizonzko idazle gehiago daude hainbat argialetxerekin lan egiten dutenak, eta argialetxe txiki gehiago daude. Gainera, eta bereziki gazte-literaturan, emakume idazle gehiagok aurkezten du bere burua sare sozialen bidez, hala nola Facebooken eta blogen bitartez, eta, azkenean, argialetxeetara iristen dira.

*“Orain erreza da argitaratzea, hemen ez dena argitaratzen beste batean argitaratzen da, (...) neretzako determinantea da kalitatea, kalitatea badago ni entregatuta nago, idazle horrek erabat irabazita naka” (E3).*

*“Geroz eta editorial txiki gehiago daude, ematen diela aukera idazle berriei, beno orain adibidez, neska asko youtuberrak eta direnak, asko ateratzen dituzte, baino gero ere badago, kolekzio batzuk asko gustatzen ari da neska gazteen artean poesia eta poesia idazten dutenen artean neska asko dira eta orduan hor badute. Badaude editorial txiki batzuk oportunitadea ematen dutenak” (E10).*

*“Eta gero beste rollo bat dago, autoedizioa ere badagoela (...) eta saldu egiten dute batzuk” (E5).*

*“En juvenil, con el tema de youtubers, sí que hay más chicas” (E7) <sup>4</sup>*

*“Asko mugitzen da sare sozialetan, askok egiten dute bere blogean zati batzuk igo eta indarra hartzen dutenean, editorial txiki batzuk hurbiltzen zaizkio eta agian hor” (E10).*

Bestalde, emakume idazle gehiago daude, eta masa kritikoa horrek ere bultzatu du emakumeen lan gehiago iristea argialetxeetara, batez ere euskaraz idatzitakoak. Are gehiago; batzuek aipatu dute gaur egun emakumeek idatzitako lanak faboratzen dituen giro bat dagoela, haien presentzia bultzatzen ari dena.

*“Nik uste dut, kulturen ekiparazioa eman dela, hemen salduenak emakumeak dira XXXX, eta gehienak emakumeak dira, idazten dutenak eta irakurtzen dutenak” (E5). “Euskaraz ere gehien saltzen dutenak emakumeak dira, gertatzen dena da, arduetan, beno ba hori beste kontu bat da” (E3).*

<sup>4</sup> “Gazte-literaturan, youtuberren kontuarekin, neska asko daude, bai” (E7).

*“Yo diría que hay muchas más escritoras ahora, desde los 14 años que llevamos, en cuanto a novela, en ensayo menos, pero en novela hay más escritoras” (E6). “En el País Vasco, lo último y más nuevo, la mayoría han sido escritoras” (E7).<sup>5</sup>*

*“Yo creo que 50 % todavía no, yo creo que falta todavía más, se vende mucho de mujer pero no creo que llega al 50 % , (...), aunque hay más mujeres sigue habiendo más hombres, si vas a la mesa de novedades, ves más mujeres pero sigue habiendo más hombres” (E7).<sup>6</sup>*

*“Etorri behar zenduela jakin nuenean, gure katalogoa begiraten aritu nintzen, gure katalogo orokorrean ia 800 bat idazle eta itzultzaile (...), % 23 da historikoki emakumea baina, 2018an, % 33 eta aurten ez dut itxia oraindik plana baina esango nuke hor nonbait izango dela, ez bada gehiago” (E1).*

*“Egun gauzak aldatu dira, eta nolabait, badakit ez dela korrektua esatea baina gaur egun, emakumeak daukala, beno, argitaratzeko, kondizionante batzuk hobeak, igual ez da korrektua, baina halako zerbait gertatzen ari da, gizarteak, komunikabideen aldetik, badago beste holako antena batzuk, piztuta daudenak” (E4).*

*“Bai, orain gehiago baina ez asko ere ez. Datuak, momentu batean egon zen, zera, emakume izanda errazago da argitaratzea, emakumeen booma, baina datuak atera ezker, % 24 bakarrik dago, baina urtero zer publikatzen dute. Gurean ere somatzen da baina oraindik ere.” (E2).*

Horri dagokionez, liburu-dendek feminismoari buruzko lanen booma aipatzen dute, ez bakarrik produkzioan, baita salmentan eta irteeran ere.

*“Gero eta gehiago ateratzen dituzte liburuak feminismoari buruz, ikaragarri, lehen genekan horrelako balda bat eta orain, ia ia behar duzu zutabe osoa. Ateratzen da gero eta gehiago eta gero eta gehiago eta jendeak bai, “El Segundo Sexo”, badaude liburu batzuk beti egon direla kabezeran eta inork ez diela kasu egin eta orain, jendea hasi da informatzen eta pila bat atera dira. Eta gero zaharrak geneuzkanak hor, jende gutxi dituenak orain badu irteera” (E10).*

*“Hay una sección de libros sobre feminismos, y ahora se edita mucho más” (E6 y E7).<sup>7</sup>*

Originala ebaluatzean, lehenengo irakurraldian, editorearen inguruak paper inportante bat jokatzen du, batez ere argialetxe txikietan. Lana ez du irakurtzen editoreak bakarrik, haren gertuko jendeak ere irakurtzen du.



<sup>5</sup> “Nik esango nuke askoz emakume idazle gehiago daudela orain, guk honetan dihardugun 14 urteei begirata, nobelei dagokienez; saiakeran gutxiago, baina nobeletan emakume idazle gehiago daude” (E6). “Euskal Herrian, azkena eta berriena, idazle gehienak emakumezkoak izan dira” (E7).

<sup>6</sup> “Uste dut oraindik ez direla iristen % 50era, uste dut oraindik gehiago falta dela; emakumeek idatzitako asko irakurtzen da, baina ez dut uste % 50era iristen denik (...) Emakume gehiago badaude ere, gizon gehiago daude oraindik; nobedadeen mahaira bagoaz, emakume gehiago ikusten dituzu, baina gizon gehiago daude oraindik” (E7).

<sup>7</sup> “Feminismoari buruzko atal bat dago, eta orain askoz gehiago editatzen dira” (E6 eta E7).

Argitaletxe handien kasuan, ostera, originala editore-taldeak irakurtzen du. Modu formal edo informalagoan, obraren lehen irakurraldia beren artean banatzen dute, eta originala ez da argitaletxetik ateratzen, haren esku geratzen da. *“Nik hemen nagoenetik, orohar, bi edo hiru editorek ikusten dute, hiruen iritzia behar da. Baina oso argi bada baietza edo ezetza bakar batek [eman dezake]” (E9) “Beti hemen erabakitzen da, tokatu denean oso gai konkretu, tekniko bat, eskatzen du beste kontraste bat (...).agian bai, kasu horietan, gaiak dakien norbaiti eta haren kontrastea (...) gure prozesuan ez da ohikoa” (E8).*

*“Nik esango nuke eguneko jardunaren parte dela, ba iritsi zait hau, begiratu eta komentatu, pilatzen baldin badira bat baino gehiago, espreski bildu eta komentatu. (...) esango nuke egunero lan egiteko modu txertatu bat dela” (E9).*

## 6. LITERATURA-KANONARI BURUZKO EZTABAIDA ESANGURATSUA

Elkarrizketa guztietan agertu da literaturan eta, oro har, artean gertatu den aldaketaren inguruko zalantza. Gutxiago irauten duela, etengabe produzitu behar dela ikusgai egoten jarraitzeko, teknologia berrien inpaktua eta abar. Bestalde, bada eztabaida sortzen duen elementu bat, eta interesgarria da elementu hori sakonago aztertzea: kanontzat hartu ohi den literatura, literaturaren kalitatea eta azken urteetan gertatu diren aldaketak. Argitaletxe batzuek adierazi dute gaur egun prest egongo lirakeela iraganean baztertutako lan batzuk argitaratzeko. Eta zalantza sortzen da, kanona ote den aldatu dena, ala sentsibilitatea.

*“Nire kasuan, liburu baten inguruan aztertzen dudanean, nire irizpidea izan da kalidatea, kalidade artistikoa, nik banekien zer zen kalidatea artistikoa gaur arte, eta oraindik badakit zer dan. XX. mende osoan erabili den kalidade literarioa, artistikoa, musikarena, izan dena, gertatzen dana da gaur egun kalidade artistiko, hori, bera ere zalantzan jarri dela, eta esan dezakete, baina kalidade horrekin bakarrik gizonezkoek argitaratu duzue, gizonezkoek egindako lana, ba bueno ba ez dakit, ba hortik ere badator aldaketa. Garai hartan, kalidatea, beno ba izen bat, xxxxxx, ba bere lana ateratzeko zenbat urte pasa zituen, ezta? Baina egin zuen liburu eder bat, eta orduan inportanteena hori zan, eta gizarteak ere ez zuen, egunero, egunero presentzia hori,*

*(...) gaur egun, gauza horiek aldatu dira, inportanteagoa da prentsan egotea” (E4).*

*“Gertatu daiteke ere, senbilitate berri bat, ez dakit, emakumea eta nik hori ez harrapatu, hori ere nik aitortzen det” (E4).*

*“Kritikarik ez dago” (E4, E5).*

*“Beste ikuspegi batetik ere literatur kanonarena ere, estabilizatutako literatur kalitatearen kontzeptu hori ere, askotan, orain arte emakumezko idazleen lan batzuri jartzen zaizkio, adjetibazio bat, intimista, eta hor badago, zea bat” (E9). “Hor badago, antologiak egiten dutenekin, literaturaren historia egiten dutenekin, literatur kritikoeekin eta abar, hor badago talka bat” (E9).*

## 7. LITERATURA-LANEN IKUSGAITASUNA: ARGITALETXEAK ETA LIBURU-DENDAK

Argitaletxeek komunikazio- eta sustapen-lan bat egiten dute literatura-lanak eta haien egileak ikusarazteko, eta lan horrek ezaugarri zehatz batzuk dauzka. Lehenik eta behin, argitaletxe gehienek gutxieneko komunikazio-plan bat dute: batetik, prentsaurrekoak egiten dituzte; bestetik, azoketara joaten dira, nobedadeak edo azken urteko argitalpenak aurkeztera (euskarazko argitalpenen kasuan, Durangoko Azoka da horretarako plaza nagusia). Bigarrenik, argitalpenak sustatu eta ikusarazteko lanaren zati handi bat idazleen eskuetan dago; haiek erabakitzen dute azoketara joan eta sinadura-saioak egin nahi dituzten, edo liburu-dendetara eta argitaletxeetara joan nahi duten, lana aurkeztera eta liburuak sinatzera. Hirugarrenik, autosustapena dago, molde desberdinetan egiten dena, belaunaldiaren eta adinaren arabera, baita profesionalizazio-mailaren eta generoaren arabera ere.

Argitaletxeek ez dute autoreen arteko bereizketarik egiten publikatutako lanaren lehen komunikazioan eta sustapenean. *“Komunikazioan, editorial bakoitzak badu bere estiloa. Guk prentsaerantz egiten dugu ekintza berezia, prentsa orduan, hau da goizean antolatzen dugu aurkezpen bat, eta gero liburuak eta batez ere egileak tiradizo nahikoa baldin badauka, jendearentzako ere aurkezpen berezia egiten, egun berean edo handik egun batzuetara” (E1) “Idazle gutxi dira promozioarako zaletasuna dutenak” (E1).*

*“Liburu bakoitzak bere ezaugarriak dauka, eta idazle bakoitzak ere eta beti adosten da egileekin (...) Bai egiten deguna, denekin berdin da prensa aurreko bat, denekin berdin, gero egile batzuk bere kabuz gehiago mogitzen dira, baina hor ya, dagoneko, argialetxeak babesa bezela egiten degu, batzuk aurkezpen gehiago egiten dituzte, liburudendetan, asoziazioetan, etabar” (E3)*

*“Lehen liburua ateratzen zenuen eta prentsaurrekoa, (...) baina lehen egun baino bi eta hiru aldiz komunikabide gehiago etortzen zen, eta horrek, nolabait ere, kubritzen zuen promozioa egiteko nagusia, baina bueno azken hamarkadan komunikabide gutxitze bat ematen ari da, haiek dituzten bitartekoak gutxitzen ari dira, mugatu direlako, (...) pozik bost etortzen bazaizkizu, gero sartu dira Komunikazio mundo horretan beste elementu batzuk, sare sozialak, (...) agente berriak sartu dira eta aldaketa horiek guztiak promozioa egiteko beste zerbait pentsatu behar dela” (E8).*

*“Idazle berri bat edo zahar bat berdin tratatzen degula, kriston ahaleginak egiten dituzu lehenengo liburuarekin, egile berri bat, (...) ez delako ezaguna” (E5).*

*“Durangon, (...) nobedade guztiak, egiten dugu, liburu gehien salduenak, betiko egileak ere, emakumezkoak beti eramaten ditugu, gehienak bakarrik ez, danak (...), egiten badugu diskriminazioen bat egiten da emakumearen alde” (E3).*

Gaur egun, lan literarioen sustapen-lanaren zati handi bat idazleek egiten dute. Argialetxeek azpiegitura eskaintzen diete, baina idazle bakoitzaren esku geratzen da beren lana ikusarazteko bidea hautatzea.

*“Hori aldatu da, idazleak berak saldu behar dutela, mugitu behar dutela” (E4). “Sinadurekin nahi duenak, nahi duena joaten da” (E3).*

*“Egia da idazle batzuk prest daude eta bere kasa antolatzen dituzte, badituztelako bere baliabide eta harreman sareak, bere kontaktuak, bere esperientzia, hala ere bata ez du bestea kentzen, argialetxeak egiten du bere bidea idazlearekin kontatuta” (E8). “Gutxiengo da bere kasa mugitzen direnak, horrelakoekin azpiegitura eskeini” (E8).*

*“Urte horretan nobedadea dutenei denei egiten zaie gonbitea (...) bertan presente egonda obra gehiago mugitzen dela, alde horretatik gonbitea luzatu eta erantzunaren arabera, gero eskatzen dute batzuk, nobedadea izan gabe eta lekua egiten saiatzen gara” (E8).*

Azkenik, obren sustapena dibertsifikatu egin da, eta orain ezaugarri desberdinak ditu egilearen adinaren eta genero literarioaren arabera, baita egilearen profesionalizazio-mailaren eta haren generoaren arabera ere. Oro har, lotura zuzena dago liburu-dendetako salmenta-kopuruaren eta autoreek idatzizko komunikabideetan duten presentziaren artean, baina ez da hala gertatzen gazteei zuzendutako nobelekin.

*“La elección de obras para la librería se hace a través de la información que le dan los comerciales, o si el autor o autora tiene una trayectoria, entonces, le da cierta información sobre si es un buen autor o autora y sino tiene una trayectoria por (referencia a lo que aconsejan los medios de comunicación, en semanales etc.), de referente de si es un buen libro (...) y el criterio personal ojeando el libro”. “Aquí en la mesa se ponen novedades, si el autor puede encajar” (E6). “La gente viene muchas veces porque ha leído una noticia en un periódico de una novela, o un libro que le interesa” (E6).<sup>8</sup>*


*“Gazteengan modu tradizionalak ez du funtzionatzen, liburua, gazteentzako zuzendutakoa bada, egunkarietan jartzen baduzu ez dira enteratzen, ez baduzu sare-sozialetan jartzen” (E10).*

*“Nik esango nuke, aurkezpen kontu horretan emakumearen jarrera gehiago da, orain, bi mota daude, generazio gazteak emakumeak egiten dute, hemen egingo dugu edo bestea, jarrera ezberdina da baina generazionala da. (...) Gero daude adinekoak (...). Orokorrean generazio berria gehiago da bere kontura egitea, hemen edo han. Badaude idazle adindunak mugitzen direla ere (E5).*

*“Emakumeak badute gehiago taldezka egiteko fasilidadea” (E3). “Durangoko azokan urtero urtero emakume idazleek egiten duten bazkari bat” (E5). “Gehiago bilatzen dira elkarren artean” (E4).*

*“Kasu gehienetan, beraiek ere komeni zaielako, profesionala da, esan dugu era horretan, idazten dut baina era horretara, komunikabideekin kolaboratzen den, idazten den, itzultzen det (...) gehien mugitzen direnak dira hortara daudenak” (E8) “genero ikuspegitik ez nuke esango diferentzia dagoenik, espazio eta eredu desberdinak erabiltzen dituzte baina burura etortzen zaizkidanak, genero ikuspegitik aldaketarik ez” (E9).*

<sup>8</sup> “Liburu-dendara ekarriko diren obrak hautatzeko, dendetako arduradunek komertzialek emandako informazioa hartzen dute kontuan, edo egileak ibilbide bat badu, horrek ere nolabaiteko informazioa ematen dio arduradunari, egilea ona den edo ibilbide bat duen (aipatzen dituzte komunikabideen aholkuak, astekariak, etab.), liburu on bat den (...) eta irizpide pertsonala, liburua gainbegiratuta”. “Mahai honetan nobedadeak jartzen dira, baldin eta autoreak leku bat izan badezake” (E6). “Askotan, jendea etortzen da nobela bati edo interesatzen zaion liburu bati buruzko albiste bat irakurri duelako egunkarian” (E6).



**BALORAZIOA,  
GENERO-IKUSPEGIA  
AINTZAT  
HARTUTA**

Datu kualitatibo eta kuantitatiboek erakusten dute azken 20 urteetan eraldaketa-prozesu bat gertatzen ari dela Euskadiko liburugintzan, genero-ikuspegiari dagokionez, eta aldaketa hori, batez ere, argitaletxeen eremuan gertatzen ari dela. Eraldaketa batzuk testuinguru soziopolitiko orokorren ondorio dira, baita beste eremu batzuek liburugintzan duten eraginaren ondorio ere. Nolanahi ere, beste eraldaketa batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxeek bizi duten egoerak eragindako aukera eta oztopoei dagozkie.

Industriaren eta enpleguaren eremuan bide luzea dugu aurretik, baina, halere, ezin da zalantzan jarri ezen azken urteetan iraultza bat gertatu dela European, Spainian eta Euskadin, hau da, areagotu egin da emakumeen presentzia soldatapeko enpleguaren eremuan. Emakumeek funtsezko papera jokatu dute eta jokatzeko dute, oraindik ere, lan erreproduktiboaren eta zaintzen eremuan, baina aldatu egin da enpleguaren eta enpresen eremuan duten presentzia. INEk eskainitako datuen arabera, 1978an emakumeen enplegu-tasa 24,99koa zen; 2018an, berriz, enplegu-tasa ia bikoitza da, 46,16koa. Aldaketa horrek sektore guztiei eragin die, eta liburugintza ez da kasu isolatu bat; nahiz eta sektore horretako langileen datuak azken urteetan soilik bildu diren sexuaren arabera bereizirik, elkarrizketen bidez jasotako lekukotzek argi uzten dute emakumeen presentziak bilakaera gorakor bat duela.

Euskadin, oro har, liburugintzan diharduten establezimenduak edo enpresak txikiak dira, 10 langile baino gutxiagokoak. Gutxi dira 10 langile baino gehiago dauzkatenak. Gainera, nahiz eta enpresa handiek tamainari eutsi dioten edo hazi egin diren, tamaina ertaineko batzuek, 4-5 langilekoek, funtzio batzuk kanpora atera behar izan dituzte, elkarrizketetan adierazi dutenez: maketazioa, itzulpenak, etab. Enpresaren tamainak eragin zuzena du lanak banatzerakoan; kide berriak bilatzeko, adibidez, sare pertsonaletara jo ohi dute, batez ere edizio-lanak egiteko laguntza behar dutenean. Elkarrizketatuek esandakoaren arabera, bada laguntzaileak bilatzeko sistema hori faboratzen duen beste faktore bat: editore-lanak egiteko, ez da behar espezializazio edo gaitasun akademiko zehatzik. Haien ustez, ezinbestekoa da ibilbide bat izatea liburuen munduan, eta irakurzaletasun berezi bat, jakina, baina ez da beharrezkoa prestakuntza espezifikoa arautu bat izatea. Argitaletxeen sortze-taldeko kide izan ez ziren langileek diotenez, argitaletxearen gertukoak zirelako proposatu zieten haiekin batera lan egitea, kolektibo hartako kideak zirelako, konfiantzagarriak, edo helburu batzuk partekatzen zituztelako. Etxekotasun hori are nabarmenagoa da ildo editoriala

nagusiki edo erabat euskarazko liburuetan oinarritua duten argitaletxeen kasuan. Elkarrizketatuek dioten moduan, denek elkar ezagutzen dute.

Baina harreman-sarean, gertutasunean eta konfiantzan oinarritutako bide hori oztopo izan da emakumeak edizio-lanetan hasteko. Argitaletxeen sortze-taldeetako kide gehien-gehienak gizonak ziren, garai haietan soldatapeko munduan gehienak gizonak ziren bezala, edo sormenaren munduan. Gizon haiek beren inguruko pertsonak hautatzen dituzte argitaletxe barruko lanak egiteko; inguru horretan egon badira emakumeak, baina emakume horiek ez dute lortzen edo ez dute helburutzat sortze-taldearen inguru erabat maskulinizatu horretan parte hartzea.

Beste faktore bat ere bada, azaltzen duena zergatik iritsi diren hain berandu emakumeak editore-lanetara: lan horretan ari den pertsona-kopurua. Euskal Herriko argitaletxe gehienetan, funtzio hori betetzen duen pertsona bakar bat dago, eta, beraz, pertsona horiek ordezkatzeko edo emakumeak funtzio horretan lanean hasteko, ezinbestekoa da haiek beren lekuak uztea. Bilduma gehiago eta, beraz, editore-lanpostu gehiago dauzkaten argitaletxeetan, errazagoa da langile berriak hartzea, eta horrek, kasu askotan, genero-aldaketa ekarri du.

Nolanahi ere den, eta belaunaldi-aldaketa dela-eta, eraldaketa-prozesu bat gertatzen ari da 1970eko hamarkadaren amaieran eta 1980koaren hasieran sortutako euskal argitaletxeen zuzendaritzetan eta antolamenduan. Elkarrizketatuen ustez, aldaketa hori ez da izango soilik belaunaldien artekoa, generoen artekoa ere izango da; beste herrialde batzuetan ere hala gertatzen ari da. Halere, prozesu gatazkatsua edo/eta problematikoa izan daiteke, zenbait alderdiri dagokienez. Alde batetik, betiko editoreak, argitaletxeen sortzaileak ere badirenak, beren lanpostua uzteko herabe ager daitezke, eta beren agurra luza dezakete, lanpostua utziz baina funtzio guztiak erabat laga barik, formalki bai baina ez praktikan, edo egitura berriak sortuz, harremanari eusteko. Bestetik, editore berriek erresistentziak topa ditzakete lan-giroa eta lanerako kultura aldatzen saiatzen direnean, edo edizio-lanak lan-egoera berriei egokitzen ahalegintzen direnean. Elkarrizketatuek aipaturiko elementuen artean, bi gailentzen dira: langileak lantokian presente egon beharra eta erabakiak hartzeko moldeak. Baina, editorea aldatzearekin batera, ildo editoriala ere aldatu egiten da ezinbestean, halaber konfiantzazko taldea, eragiten diona ez soilik argitaletxearen gertuko izatera iritsi daitezkeen pertsoneri, baita lan originalen hautaketari ere.

Argialetxeak idazle baten literatura-ibilbidearen abiaburua dira. Idazle batentzat, argialetxea da irakurleengana iristeko lehen atea. Baina argialetxeei esleitu ohi zaien gaitasun hori murriztuz doa apurka, txikitu egin da irakurtzen den eta irakurtzen ez den horretan argialetxeek izan dezaketen eragina. Prozesu horri dagokionez, elkarrizketatuek bi elementu aipatu dituzte: batetik, teknologia berrien bilakaera eta autoedizioa areagotzea; bestetik, sare sozialen rola, kontuan harturik etorkizuneko idazleek sare sozialetan ezagutarazten dituztela beren lanak. Guztiarekin ere, ezin da zalantzan jarri ohiko argialetxeek produkzio literarioan duten rola, original bat liburu bihurtzeko prozesuan duten papera.

Testuinguru horretan, originalaren zero irakurketak funtsezko papera jokatzen du; hau da, originalaren lehen-lehen irakurketa, erakusten duena merezi ote duen lan hori aintzakotzat hartzea. Zalantzarik gabe, urrats horretan editorearen irizpidea gailentzen da, baina, batzuetan, editoreak gertuko pertsona batzuen iritzia ere hartzen du kontuan (idazleak, literatura-kritikariak, literaturazale handiak, etab.). Orainsu arte, editorearen inguruko egitura informal hori gizonen osatzen zuten, nagusiki. Argialetxe handiagotan, berriz, egitura formal edo informalgoak izaten dituzte, lan horren banaketa errazten dutenak. Bestalde, obra askok ez dute irakurketa horren beharrik, autorearen ibilbidearen bermea dutelako edo gertuko idazle baten gomendioarekin batera iritsi direlako argialetxera. Hasiera batean, argialetxeen gertuko inguru hori oso itxia izaten zen, eta leialtasunean oinarritzen zen; idazle bakoitza argialetxe bati zegokion, eta horrek bere produkzio literarioaren edizioa errazten zuen. Gaur egun, ordea, ohikoagoa da idazleek zenbait argialetxerekin publikatzea beren lanak.

Idazle berri batek literaturagintzan hasi nahi bazuen, funtsezkoa zuen editorearen inguru horretako kide izatea edo inguru horretan kontakturen bat izatea, bere obra babestuko zuena. Konfiantza, sarea, ezinbesteko elementua da berriro ere. Elkarrizketatu batzuen ustez, gaur egun errazagoa da inguru horretako kide izan barik liburu bat argitaratzea, lanak ezagutarazteko beste bide batzuk daudelako (youtube, blogak, etab.) eta jarraitzaileen bermea delako argialetxeak sortzaileekin harremanetan paratzen bultzatzen dituenak. Bestalde, autoedizioa ere asko hedatu da, eta, gainera, lehia handiagoa dago argialetxeen artean; badakite lan bat argialetxe batean argitaratu ezean beste batean argitaratu daitekeela.

Berriak ez diren idazleen kasuan, argialetxeek sormena akuilatzen lana ere egiten dute. Obra zehatz bat enkargatzen ez dietenean ere, editoreek gertuko idazleen produkzio literarioarekiko interesa agertzen dute, haiei laguntzeko, adore emateko, martxan duten eta publikatzeko modukoa izan daitekeen proiektu bat ixteko. Lan hori ere lagungarria izan daiteke idazlearen ibilbidea finkatuz joateko.

Beraz, dela idazle berriak literaturagintzan abiatzeko dela jada horretan diharduten idazleen ibilbidea finkatzeko, argialetxeek rol garrantzitsua joko dezakete. Horri dagokionez, elkarrizketatu guztiek adierazi dute ez dela generoaren arabera bereizketarik egiten; izatekotan ere, bateren batek adierazi du emakumeek konfiantza gutxiago erakusten dutela beren lanarekiko originalak aurkezten dituztenean. Alabaina, eta zeharka bada ere, badirudi editorearen inguru horretako kide ez izateak eragin handiagoa izan duela emakume hasiberriengan idazle-ibilbidea hastear ziren gizonengan baino. Nolanahi dela ere, elkarrizketaturiko edizio-arduradunek adierazi dute lan bat argitaratzeko elementurik inportanteena haren kalitate literarioa dela, eta kalitate handiko obrek ez dutela inolako oztoporik izaten. Gaiak, irakurle-komunitatearen eskaera... horiek ere aintzat hartu beharreko irizpideak dira.


Zernahi gisaz, kalitateari eta gaiei dagokionez, elkarrizketatuei iruditzen zaie aldaketa- eta eraldaketa-garai batean gaudela. Haien ekarpenetatik ondoriozta daitekeenez, eztabaida bat dago sormen-lanen kalitatea neurtzeko orduan kontuan hartu beharreko parametroen inguruan, eta eztabaida horrek kulturaren eremu guztiei eragiten die, baita literaturari ere. Gizartea aldatu egin da, sare sozialek gero eta paper funtsezkoagoa jokatzen dute; literatura-lan bakoitzari eskainitako denbora, idazteko moldeak eta idazgaiak. Oro har, elkarrizketatu guztiek irudipen bera dute, eraldaketa-prozesu batean bizi garela. Hori ondoriozta daiteke liburu-dendentan egindako elkarrizketetatik, non feminismoari buruzko liburuen booma nabarmentzen baitute, edo, are gehiago, apaletan eta saldu gabe urte mordo egin duten liburuen gaur egungo eskaera handia. Azpimarratzen dute, baita ere, gazteei zuzendutako literaturan gertatzen ari den aldaketa; alde batetik, sare sozialetatik emakume idazle asko datoz, eta, bestetik, orain beste era bateko poesia eskatzen dute, gero eta gehiago. Argialetxeek ere zalantzan jartzen dituzte obrak hautatzeko ezarritako irizpideak; ez dakite asmatzen ari ote diren, eta literatura-kanonari buruzko polemika dago.



Eztabaida horren parte batek emakume idazle batzuek sortutako literaturari eragiten dio, eztabaida askoz sakonagoa bada ere.

Azkenik, argitaletxeek diote idazle gutxi dedikatzen direla eskusiboki literaturara. Gehienek beste lanbide bat ere badute, eta, kasu batzuetan, zaintza-lanak ere egiten dituzte. Gai hori azaleratu da argitalpenen zabalkundea, sustapena eta ikusgaitasuna aipatzean. Argitaletxe gehienek diote, baita liburu-dendek ere, publikatutako obren sustapen-lan handiena idazleek egin behar dutela; bada nolabaiteko protokolo formalizatu bat, argitaletxeek publikatutako lan guztiakin jarraitzen dutena, baina badira beste kontu puntual batzuk idazlearen ekimenaren esku geratzen direnak, hala nola liburu-denda batean aurkeztea eta liburuak sinatzea, azoketara joatea eta han sinadura-saioak egitea, sare sozialetan zabaltzea eta beste zera batzuk. Lan horretan ez da desberdintasunik sumatzen genero-ikuspegiari dagokionez, hau da, ezin da esan emakumeek joera gutxiago dutenik gizonen baino beren obren sustapen-lan hori egiteko. Aldiz, bai esan daiteke promozio-lan hori idazlearen 'profesionalizazio'-mailarekin lotuta dagoela. Hau da, idazle batzuek –oro har, nolabaiteko ibilbidea eta sendotasuna dutenek–, sustapen-lanaren garrantziaz jakitun, ahalegin berezi bat egiten dute beren lana ikusarazteko, denbora bat eskaintzen diote promozioari, eta, horretarako, beren eskarmentu propioa eta urteen poderioz eraikitako harreman-sarea erabiltzen dute. Horrek zuzenean eragiten dio idazle baten ibilbideari, ezaguna izaten eta komunikabideetan eta sare sozialetan presente egoten laguntzen baitio.





**PROPOSAMENAK,  
GENERO-IKUSPEGIA  
AINTZAT HARTUTA**

Liburugintzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko egin daitezkeen ekintzen eta har daitezkeen neurrien inguruan galdetzerakoan, elkarrizketatuek egindako proposamen guztiek oinarri bera dute: hezkuntza. *“Niri ez zaitena normala iruditzen da haurrak eta gazteak nola banatzen diren, elkarrekin daude eta 10-12 urtekin, kirola dela, beste gauzak dela banatzen dira, (...) eta kudrilak mutilenak edo neskenak dira, eta gero harritzen gara, sociedadeak, eta txokoak eta nola diren gizonenak edo emakumeenak, jope, ez que normala, ia 14 urtekin batzuk ibiltzen dira alde batera eta besteak bestera.”* (E5). Estereotipoak, rolak, desberdintasunak... txikitatik landu behar lirarteke, haien ustez, eta gaur egun lehengo berak izaten jarraitzen dute. Horrek harremanak izateko moldeei eragiten die ezinbestean, batez ere eremu informalean, zeinak konfiantza eta gertutasunean oinarritzen baitira. Eta hori da, hain zuzen ere, Euskadiko liburugintzaren ezaugarri nagusia: konfiantza eta gertutasuna.

Elkarrizketatuek zaintzaren kultura aldatzea ere proposatu dute, hau da, erantzunkidetasuna sustatzea eta/edo kontzilio-neurriak ezartzea liburugintzako erakundeetan, bateragarriak izan daitezen mendeko pertsonen zaintza eta ibilbide profesional arrakastatsuak. *“Aktibatu behar dira, etxetik hasita, organizazioetan, ez da alor batean bakarrik eragin behar (...) beste gai inportante bat kontzilioaren tema, niretzako tema klabeetako bat da, emakumea eta zaintza, eta hori beste modu batera ez bada aldatzen, zaintzaren ardurak emakumeak daramate, haurren edo helduen, eta hori konpatibilizatzea karguekin edo bizibildadearekin, ba jope, gainera ez da erraza ba, horrela ere ba”* (E8).

Horrekin lotutako beste kontu bat da lantokian presente egoteko kultura, lantokian egiten diren orduak produktibitate-irizpide gisa erabiltzea, edo enpresarekiko konpromiso-mailaren neurgailu gisa. *“Patroi batzuk aldatu behar dira, ordu-karga hori adibidez, (...) orokorrean aldatzen ari da, baina orain arte, ardurak eta ordu pila bat lantokian, kultura hori aldatu behar da (...) egiteko modu hori, egoteko modu horrekin”* (E8).

Genero-ikuspegiari dagokionez, argialetxeetako zuzendari-tzetan gertatu dira jada aldaketak, edo gertatzen ari dira, edo badatoz; irudipen hori dute argialetxeetako ordezkariak. Nolanahi ere, batzuek eraldaketa-prozesu hori bultzatzea proposatzen dute, neurri gisa: *“Martxan dago, nik uste det martxan dagoen horri babesa ematea”* (E4).

Ildo beretik, argialetxeek eta liburu-dendek jakin nahi dute zertan diren Euskadin liburu-eskaerak eta irakurtzeko ohiturak. Hezkuntza Ministerioak *“El Sector del Libro en España, 2017”* txostena argitaratu zuen, non horri buruzko datuak biltzen baitira; baina txosten horretan ere ez da aintzat hartzen genero-ikuspegia. Sexuaren arabera bereizirik biltzen diren datu garrantzitsuenak bigarren mailako iturrietatik jasotzen dira, hala nola *Hábitos de Lectura y Compra de Libros en España*, Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak argitaratzen duena. Txosten hori galdetegi batean oinarrituta dago, eta informazio-iturri garrantzitsua da eskaeraren egoera ezagutzeko. Autonomia-erkidegoen arabera bereizirik datuak erreferentzia gisa erabil daitezke, baina laginketak fidagarritasuna galtzen du baldin eta beste aldagai batekin (sexua) gurutzatzen bada. Etorkizunari begira, Federazioarekin batera adostu liteke Euskadiko laginketa zabaltzea edo Euskadin ikerketa espezifikoa bat egitea.



Jakitea zenbat liburu (hizkuntza, generoa, etab.) argitaratzen diren, egileen sexua zein den... Zalantzarik gabe, horrek guztiak erabaki egokiagoak hartzen lagunduko luke. Era berean, interesgarria izango litzateke jakitea zer eratako liburuak eskatzen dituzten irakurleek. Aipaturiko txostenean, Espainian gehien erosi eta irakurritako liburuen rankinga agertzen da, halaber gehien irakurritako idazleena. Interesgarria litzateke Euskadiren kasuan ere adierazle horiek izatea. Espainian gehien erosi eta irakurritako 10 liburuen rankingaren arabera, 6 libururen egileak emakumeak dira, eta horietako 5 euskaldunak. Dolores Redondo idazle gipuzkoarrak lau obra dauzka gehien irakurritako 10 liburuen artean (*El guardián invisible*, *Legado de huesos*, *Ofrenda a la tormenta* eta *Todo esto te dará*; Erein argitaletxeak publikatu ditu euskaraz), eta Eva García Saez arabarra ere badago zerrenda horretan, *El silencio de la Ciudad Blanca* liburuarekin. Espainian 2017an gehien irakurritako liburuen zerrendaren lehen postuan *Patria* dago, Fernando Aramburu gipuzkoarrarena. Gehien erosi eta irakurritako 10 idazleen zerrendaren buruan, berriz, Dolores Redondo dago, eta zerrenda horretan beste lau emakume ere badira: Julia Navarro, Joanne Rowling, Eva García Saenz eta Paula Hawkins.

Esku hartzeko beste eremu bat Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren birbanatze-politikak dira. Kasu horretan, bi modutan jardun liteke. Batetik, genero-klausulak txerta daitezke liburuak argitaratzeko ematen diren laguntzetan. Bestetik, bi eremutan eragiteko laguntzak sor daitezke: emakume idazle berriak literatura-ibilbidean abiatzeko laguntzak eta jada libururen bat argitaratua duten emakume idazleak finkatzeko laguntzak. Lehen ildoari dagokionez, sail horren 2019ko aurrekontu-txostenean konpromiso hori jaso zen, hau da, laguntzak berrikustea, genero-ikuspegia aintzat hartuta. Plus bat txerta liteke laguntzetan, antolamendu-organoen osaeran egindako aldaketak positiboki saritzeko –batez ere zuzendaritzetan egindakoak–, edo edizio-planetan emakume idazle berriak sartzea saritzeko, edo jada ibilbide bat egin duten idazleak sustatzeko –batez ere emakumeek idatzitako lanen presentzia txikiagoa den eremuetan, hala nola saiakeran edo beste genero batzuetan–.

Azkenik, prestakuntzari eta sentsibilizazioari dagokionez, interesgarria litzateke jardunaldi espezializatu batzuk antolatzea, liburugintzari buruzko hausnarketa bat egiteko genero-ikuspegiarekin, batez ere arlo hauetan: literaturaren kalitatea, ekarpen berriak eta liburugintzaren norabidea. Sektorea antolatzeko molde berriak eta genero-ikuspegia konbina daitezke, argitaletxeen elkarrekin elkarlanean, hausnarketarako espazioak zabaltzeko eta beste testuinguru geografiko batzuetako argitaletxeekin bizipenak partekatzeko.

Horretarako aterki egokia izan daiteke, adibidez, UPV/EHU erakundeak Miramar Jauregian antolatzen dituen udako ikastaroen formatua.







**ERANSKINAK**

# I. ERANSKINA: ARGITALETXEAK ELKARRIZKETATZEKO GIDOIA

## SARRERA

Elkarrizketaren arrazoiak, Kultura Sustatzeko Zuzendaritza, liburugintzaren mundua genero ikuspegia aztertzeko bi proiektu martxan jarri ditu: bata sormenarekin zerikusia duena eta bestea industriarekin. Ikerketa kuantitatiboa aurreratua dago eta orain gara baina ikerketa kualitatiboa burutzen ari gara. Hau da liburuaren industrian zabilzaten profesionalen ikuspuntua jasotzen.

Elkarrizketa honen anonimotasuna bermatuko da, hau da, txostenean zuzenean jasotzen diren aipuak kodifikatuak doaz inola ere zuzeneko izenarekin. Elkarrizketatuen izenik ere ez da adierazten bertan.

Informazio guztia biltzeko eta lana errazteko elkarrizketa grabatu egingo da.

### 1. Esperientzia pertsonala eta emakumeen presentzia argitaletxeetan

- a. Editore izateko erabakia, formakuntza, aurre ibilbidea.
- b. Editore lanean esperientzia
- c. Editore izateko lagungarri diren elementuak
- d. Editore ibilbidean oztopo handienak
- e. Datu estatistikoak aztertu ditugu eta egun, argitaletxetan lanean ari diren pertsonen erdia emakumeak dira eta beste erdia gizonezkoak. Beti izan da horrela? Noiz uste duzu eman dela aldaketa? Zergatik eman da aldaketa?
  - i. Zein da zuen esperientzia
  - ii. Zein da ezagutzen dituzun argitaletxeen esperientzia
- f. Nahiz eta lanean ari diren pertsonen kopuruan genero distantziarik ez izan, Argitaletxeen buruan, dauden emakumeak gutxi dira. Noiz azaltzen dira lehenak? Zergatik ez daude gehiago? Ziurrenik argitaletxe bakoitzeko egoera ezberdina da baina, ezagutzen dituzu kasuak?
- g. Elkartean, esaterako,
  - i. Euskal Editoreen Elkarte 6/20 tik. Barne antolaketaren berri
  - ii. Liburuaren Ganbaran (gutxiago, Elkarreko Olatz Osa soilik)
  - v. Gremio de Editores Vascos
  - vi. Gremio de Editores de Álava

## 2. Berdintasunaren inguruan ekintzarik burutu duzue argialetxean?

- a. Hausnarketaren bat
- b. Ikastaroren bat, norbaitek?
- c. Planik? Ekintzarik? Parte hartu duzue fororen batean?
- d. Egokia ikusiko zenukete horren inguruan argialetxean hausnarketarik, ez da beharrekoa.

## 3. Emakume idazleak. Presentzia

- a. Gehiago orain? Alor guztietan, edo genero batzuetan bakarrik?
- b. Nola esango zenuke izan dela eboluzioa, bapateko gorakada, inkrementala, badago momentu zehatz bat, hamarkadaren bat?
- c. Zer eragin du aldaketa zure ustez?

## 4. Emakume idazleak. Argialetxeekin harremana

- a. Nola hastenda idazle eta argialetxearen arteko harremana? Enkarguzko liburuak? Nola egiten duzue gehien bat idazlanaren aukeraketa? Esango zenuke prozesu hau antzekoa dela emakumeetan eta gizonetan? Argialetxean nor arduratzen da lan honetaz gehien bat? Argialetxean nor arduratzen da lan honetaz gehien bat?
- b. Zero irakurketa ez profesionala: Nork? Gaiaren arabera?
- c. Irakurketa profesionalari buruzko txostena:
  - i. Liburuaren Kalitatea
  - ii. Liburuaren Salgarritasuna
- d. Mahai-edizioa (*editing*, zuzenketak proposatu etab.) idazlearekin harreman estua izaten da. Jarrera, harremana, nolakoa izaten da? Esango zenuke generoaren arabera, aldaketarik somatzen dela?
- e. Estilo Zuzenketa
- f. Maketaren diseinua
- g. Ortografia zuzenketak
- h. Ikuspegi legala: ISBN etabarren kudeaketa?

## 5. Emakume idazleak. Liburuaren Publizitatea

- a. Azokak:
  - i. Ferietara zein eraman, sinadurak azoketan
  - ii. Zein azokatarara, bertakoa, estatu maila, nazioartekoak? Egiten da? Irizpide berdinak erabiltzen dira?
- b. Prentsaurrekoak, Liburuaren aurkezpenak:
  - i. Beti antolatzen dira, zein kasutan? Zeintzuk dira irizpideak? Uste duzu generoaren arabera ezberdintasunik dagoenik?



- c. Liburutegietan sinadurak?:

Beti antolatzen dira, zein kasutan? Zeintzuk dira irizpideak? Uste duzu generoaren arabera ezberdintasunik dagoenik?

### 6. Idazle emakume kopurua eta ikusgarritasuna handitzeko neurriak

- Neurrik hartuko zenituzke?
- Zein neurri emakume kopurua handitzeko?
- Zein neurri emakume idazleen ikusgarritasuna handitzeko?

Mila miloi esker zure laguntzagatik.

## II. ERANSKINA: LIBURU-DENDAK ELKARRIZKETATZEKO GIDOIA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak liburugintzaren alorrean emakumeen eta gizonen egoera aztertzeko ikerketa kuantitatibo bat bideratu du, eta elkarrizketa honen helburua da ikerketa hori osatzen laguntzea. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxe eta liburu-dendetako zenbait arduradun elkarrizketatuko ditugu.

Elkarrizketan esandakoak modu anonimoan jasoko dira; hau da, txostenean bildutako aipu zuzenak kodetuta egongo dira. Elkarrizketatuen izenak ez dira zuzenean jasoko.

Informazio guztia biltzeko eta lana errazteko, elkarrizketa hau grabatu egingo dugu. Grabazioa elkarrizketatzaileak soilik tratatuko du, eta transkripzioan ez da elkarrizketatuaren erreferentziarik aipatuko.

### 1. Esperientzia pertsonala

- Zergatik liburu-denda bat? Edo, nolatan liburu-denda bat?
- Prestakuntza berezirik jaso duzu liburu-denda bat zuzentzeko edo liburu-denda batean lan egiteko? Uste duzu liburu-saltzaile gehienek gauza bera erantzungo luketela?
- Prestakuntza berezirik? Eta liburu-dendako langileek? Nola aukeratzen dira langileak, zer ezaugarri edo gaitasun izan behar ditu liburu-denda bateko langile batek?
- Zenbat denbora daramazu honetan lanean?
- Zer elementuk lagundu dizute ibilbide horretan?
- Zer oztopo aurkitu dituzu bidean? Emakumeek gizonak ez bezalako oztoporen bat gainditu behar izaten dute?

## 2. Emakumeen presentzia liburu-dendetan

- Argialetxeetan, emakume-kopurua areagotzeko ahalegina egin da? Eta liburu-dendetan? Gaur egun, liburu-dendetako kudeatzaileen % 60 emakumeak dira, eta liburu-dendetan administrazio-lanak egiten dituzten pertsonen % 83 ere emakumeak dira. Noiz gertatu zen aldaketa? Zergatik?
- Ezagutzen dituzun liburu-dendetan ere prozesu hori gertatu da?
- Argialetxeetan, eta genero-ikuspegiari dagokionez, desberdintasunak daude langileen eta zuzendaritzen artean. Zure ustez, liburu-dendetan ere gauza bera gertatzen da?
- Zein dira liburu-denden elkarterik garrantzitsuenak? Nortzuk daude elkarre horien zuzendaritzetan? Zer bilakaera izan du emakumeen presentziak liburu-denden elkarreetan?

## 3. Berdintasunaren inguruan ekintzarik burutu duzue liburu-dendan?

- Hausnarketa-prozesuren bat egin duzue?
- Informazioa jasotzeko ekintzaren bat egin duzue?
- Baduzue berdintasun-planik? Berdintasuna sustatzeko ekintzaren bat egin duzue? Fororen batean parte hartu duzue?
- Ezagutzen duzu liburu-dendaren batek arlo honetan egindako ekimenen bat?

## 4. Emakume idazleak: presentzia

- Gaur egun, emakumeek idatzitako liburu gehiago erosi eta saltzen dira? Genero guztietan?
- Zure ustez, zer bilakaera izan du prozesu horrek? Inkrementala izan da, bat-batekoa? Urte gutxitan gertatu da? Hamarkada zehatzen batean?
- Zure ustez, zer faktorek bultzatu dute areagotze hori?

## 5. Eskaintza eta salmenta

- Handitu egin da emakumeek idatzitako liburuen eskaintza argialetxeen aldetik?
- Handitu egin da emakumeek idatzitako liburuen eskaera herritarren aldetik? Badaude emakumeak gehien saltzen diren liburuen egileen artean?
- Zure ustez, desberdintasunik dago erreferentziazko emakume idazleen eta erreferentziazko gizon idazleen artean, kopuruari dagokionez?

## 6. Zer irizpide nagusitzen dira liburu bat erosterakoan? Bitartekariak? Liburu-dendari dagokionez, nork hautatzen ditu liburuak?

## 7. Liburuaren promozioa

- Azoketan parte hartzea. Zer irizpideren arabera erabakitzen da zer liburu eramango diren azoketara?
- Zer irizpideren arabera antolatzen dira sinadura-saioak liburu-dendetan?
- Zer irizpideren arabera jartzen dira ikusgai liburuak liburu-dendetan?

## 8. Zer neurri har daitezke emakumeek idatzitako liburuak ikusgai jartzeko?

Eskerrik asko ikerketa honetan parte hartzeagatik.

### III. ERANSKINA: ELKARRIZKETATUEN FITXA

#### 1. ELKARRIZKETATUAREN FITXA PERTSONALA

SEKTOREA	ARGITALETXEA
SEXUA	GIZONA
KARGUA	EDITOREA
KODIFIKAZIOA	E1

#### 2. ELKARRIZKETATUAREN FITXA PERTSONALA

SEKTOREA	ARGITALETXEA
SEXUA	GIZONA
KARGUA	EDITOREA
KODIFIKAZIOA	E2

#### 3. ELKARRIZKETATUAREN FITXA PERTSONALA

SEKTOREA	ARGITALETXEA
SEXUA	EMAKUMEA
KARGUA	ZUZENDARITZA
KODIFIKAZIOA	E3

#### 4. ELKARRIZKETATUAREN FITXA PERTSONALA

SEKTOREA	ARGITALETXEA
SEXUA	GIZONA
KARGUA	EDITOREA
KODIFIKAZIOA	E4

#### 5. ELKARRIZKETATUAREN FITXA PERTSONALA

SEKTOREA	ARGITALETXEA
SEXUA	GIZONA
KARGUA	EDITOREA
KODIFIKAZIOA	E5

#### 6. ELKARRIZKETATUAREN FITXA PERTSONALA

SEKTOREA	LIBURU-DENDA
SEXUA	EMAKUMEA
KARGUA	ZUZENDARITZA
KODIFIKAZIOA	E6

#### 7. ELKARRIZKETATUAREN FITXA PERTSONALA

SEKTOREA	LIBURU-DENDA
SEXUA	EMAKUMEA
KARGUA	ZUZENDARITZA
KODIFIKAZIOA	E7

#### 8. ELKARRIZKETATUAREN FITXA PERTSONALA


SEKTOREA	ARGITALETXEA
SEXUA	EMAKUMEA
KARGUA	ZUZENDARITZA
KODIFIKAZIOA	E8

#### 9. ELKARRIZKETATUAREN FITXA PERTSONALA

SEKTOREA	ARGITALETXEA
SEXUA	EMAKUMEA
KARGUA	ZUZENDARITZA
KODIFIKAZIOA	E9

#### 10. ELKARRIZKETATUAREN FITXA PERTSONALA

SEKTOREA	LIBURU-DENDA
SEXUA	EMAKUMEA
KARGUA	ESTABLEZIMENDUAREN ARDURADUNA
KODIFIKAZIOA	E10



# KULTURA AUZOLANEAN

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

